- Control y revisión de liquidaciones de intereses de demora giradas por el Servicio de Recaudación tendentes a depurar, fraccionar e incorporar los saldos correctos de deuda en las liquidaciones origen.

Tokiko tributuen (L, E, P tipoak) urteko likidazioari dagokionez, zerga-bilketa garbiaren eta konturako emateen arteko doikuntza egin da L tipoaren kasuan; kobratzeke dagoena zehaztu da eta hurrengo ekitaldiko konturako ematea kuantifikatu da.

Con respecto a la liquidación anual de los tributos locales (tipos L,E, P) se ha llevado a cabo el ajuste entre recaudación neta y entregas a cuenta en el caso del tipo L, el señalamiento del pendiente de cobro así como cuantificación de la entrega a cuenta del ejercicio siguiente.

Bereizitako udalen prozesuak kontrolatzen jarraitu da (Bizkaiko Foru Aldundiak borondatezko epean baino ez du egiten zorraren bilketa), haien zorren kudeaketa autonomorako (kobratzeke dagoena helaraztea eta jatorrian deskargatzea), eta, hamabostean behin, epe exekutiboan zeuden zorrak deskargatu zaizkie zorren (OHZ, EJZ) bilketaren kudeaketa bere gain hartu duten udal bereiziei.

Se ha continuado el control de los procesos de los ayuntamientos segregados (de los que la Diputación Foral de Bizkaia sólo lleva la recaudación de la deuda en voluntaria) para la gestión autónoma de sus deudas (traslado del pendiente y descarga a origen) y se han descargado quincenalmente las deudas en periodo ejecutivo a los ayuntamientos segregados que han asumido la gestión recaudatoria de las deudas (IBI, IAE).

Tributuen hileko likidazioak egin zaizkie hirugarrenei (foralak ez diren balioak, FEB): N tipoa (udalen zorrak, beti exekutiboan); O tipoa (delitu fiskalaren ondoriozko isunak); C tipoa (Merkataritza Ganbera – ganberaren kuota), eta M tipoa (udal-tasak).

Se han llevado a cabo las liquidaciones mensuales de los tributos a terceros (valores no forales VNF) tipo N (deudas de los ayuntamientos,siempre en ejecutiva), tipo O (multas por delito fiscal), tipo C (Cámara de Comercio – cuota cameral) y tipo M (tasas municipales).

Merkataritza Ganberaren zorren (ganbera-errekurtsoa) urteko likidazioaren proposamena prestatu da –haren kobrantzaren kudeaketa hitzarmen bidez hartu da–, eta kobratzeko zegoenaren berri eman da.

Se ha elaborado la propuesta de liquidación anual de las deudas (recurso cameral) de la Cámara de Comercio, cuya gestión de cobro ha sido asumida en virtud de convenio, y se ha comunicado el pendiente de cobro.

Aldian-aldian eguneratu dira Ogasun eta Finantza Sailaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko gainerako unitateen kobratzekoen zerrendan jasotako zorrak.

Se ha hecho la actualización periódica de las deudas contenidas en el pendiente de cobro el Departamento de Hacienda y Finanzas y del resto de la Diputación Foral de Bizkaia.

Kontabilitateko zuzenketarako proposamenak gauzatu dira (S1RS aplikazioa – autolikidazioak eta likidazioak).

Se han materializado las propuestas de rectificación contable (aplicación S1RS-autoliquidaciones y liquidaciones).

Sarreraren egunerako datatzea egin da. Okerrak zuzendu dira, eta, hala behar izan denean, aurrekontuz kanpoko balioetara bideratu dira.

Se ha realizado la data diaria del ingreso. Se han hecho las correcciones de errores y se han remitido, en su caso, a valores extrapresupuestarios.

Zenbait bidetatik (erakunde laguntzaileak, Eusko Jaurlaritzaren pasabidea, zerga-bilketa, transferentziak, etab.) gauzatutak sarrera egunero amaitu eta kontziliatu da, lotutako dokumentazioarekin, eta, gero, kontabilitatean erregistratu da.

Se ha llevado a cabo la finalización y conciliación diaria del ingreso, materializado a través de los distintos cauces posibles (entidades colaboradoras, pasarela del Gobierno Vasco, recaudación, transferencias, etc) con su documentación asociada y su posterior registro contable.

Ordainketaren eta likidazioen fiskalizazioaren arloan:

Bidegabeko sarrerak itzultzeko aplikazioan (DWA0), ordainketak itzultzeko aukera gehitu da tokiko tributuetarako. Itzultzeko aukera berriak garatu dira ingurumenaren arloko zerga berrietarako.

Ordainketen aplikazioan (EJA0), kontrolak garatu dira errenta-aitorpen tazituen itzulketak detektatzeko, konturik gabe sortutako likidazioak aurkitzeko. Xedea da errekerimenduak saihestea eta aurretiaz tratatu ahal izatea.

Ordaintzeko modu espezifiko bat ezarri da gasolio profesionalerako laguntzen aurrerakinerako.

Ordainketa-prozedura berriak garatu dira diru-sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzako 200 euroko laguntzen aurrerakinerako.

EJA0n kudeatutako kate bat ezarri da gasolio profesionalaren gaineko zergaren itzulketa partzialaren onuradun ez diren enpresei zenbait energia-produkturen prezioa ordaintzeko zuzeneko laguntzak izapidetzeko.

Kontu ordaintzailea hautatzeko aukera garatu urrekontuz kanpoko ordainketetarako. Aplikazioak eskainitakoak baino ezin dira hautatu.

Zergak kudeatzen dituzten atalek fiskalizaziorako aplikazioan (S5A0) kargatzea sustatu da, fiskalizazioaren ehunekorik handiena kontrol informatikoen bidez izan dadin. Zekazki, lan egiten ari da Eskualdaketen Ataleko loteetan, fiskalizaziorako aplikazioan kargatzeko.

En el ámbito de la fiscalización del pago y de las liquidaciones:

En la aplicación de devolución de ingresos indebidos (DWA0) se ha incluido la opción de devolución de pagos para los tributos locales. Se han desarrollado nuevas opciones de devolución para los nuevos impuestos medio ambientales.

Se han desarrollado en la aplicación de pagos (EJA0) controles para la detección de devoluciones de declaraciones tácitas de renta, con el objetivo de localizar las liquidaciones generadas sin cuenta, para evitar requerimientos y poner tratarlas previamente

Se ha estado instaurado una forma de pago específica para el anticipo de ayudas al gasóleo profesional.

Se han desarrollados nuevos procedimientos de pago para los anticipos de las ayudas de 200 euros para personas físicas de bajo nivel de ingresos y patrimonio.

Se ha implementado una cadena gestionada en EJA0 para tramitar las directas para sufragar el precio de determinados productos energéticos a las empresas que no se benefician de la devolución parcial del impuesto del gasóleo profesional.

Se ha desarrollado para los pagos extrapresupuestarios la opción de selección de cuenta pagadora, sólo pudiendo seleccionar las ofrecidas por la aplicación.

Se ha impulsado la carga desde las secciones de gestión tributaria en la aplicación de fiscalización (S5A0) para que la fiscalización pueda ser en un mayor porcentaje a través de controles informáticos, en concreto los lotes que pertenecen a la Sección de Transmisiones son sobre los que se está trabajando para su carga en la aplicación de fiscalización.

S5A0 eta S8A0 aplikazioen arteko lotura garatzen ari da, S5A0 aplikazioa dinamikoa izan dadin bertan kargatzen diren zenbatekoak eguneratzeari dagokionez. Zerga-bilketaren kateen deskargak detektatu ahal dira, baita S5A0 kargatu ondoren sortutako interes berrien deskargak ere.

Se está desarrollando la conexión entre las aplicaciones S5A0 y S8A0, para que la aplicación S5A0 sea dinámica a la hora de actualizar todos los importes que se cargan en ella, pudiendo detectar las descargas de cadenas de recaudación, así como descargas de intereses nuevos generados en un momento posterior a la carga en S5A0.

Aurretiazko fiskalizazioa duten administrazio-egintza gehiago sortzen jarraitu da, ekitaldi bakoitzean ahalik eta jarduketa gehien egon daitezen fiskalizatuta.

Se siguen ampliando los actos administrativos objeto de fiscalización previa, en un esfuerzo por abarcar en cada ejercicio el mayor número de actuaciones fiscalizadas.

Ordainketen aplikazioa (EJA0) Editranen ezarpenera egokitzen jarraitu da, BFAren erakunde ordaintzaileekin harremanetan jartzeko bide bakarra izan dadin.

Se sigue adaptando la aplicación de pagos (EJA0) a la implantación de Editran, como forma única de relacionarse con las entidades pagadoras de la DFB.

Kate berriak sortu dira aurretiazko sarrerarik gabeko zorpekinak kontrolatzeko, ordaintzeko borondatezko epean sartu ez direnean. Helburua da sarrera izapidetzen dituzten atalei sartu ez izanaren berri ematea, baita zorpekinarekin likidazioa sortu behar dela jakinaraztea ere.

Se han generado cadenas nuevas para controlar aquellos contraídos sin ingreso previo que en su plazo voluntario de pago no han sido ingresados, para comunicar a las Secciones tramitadoras de estos su falta de ingresos y la necesidad de generar liquidación con contraído.

Bizkaiko Foru Saileko sail guztietako kudeaketa-aplikazioetan egindako aldaketen eta berrikuntzen ondorioz fiskalizaziorako aplikazioak beharrezkoak diren egokitzapenak ezartzen jarraitu da, baita sail berrien ondorioz egitura organikoan izandako aldeketak direla-eta beharrezkoak direnak ere.

Se ha continuado con la línea de implantar las adaptaciones necesarias en las aplicaciones de fiscalización que sean consecuencia necesaria de las modificaciones e innovaciones realizadas en las aplicaciones de gestión de todos los departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia, así como por los cambios en la estructura orgánica como consecuencia de los nuevos.

Gastuen arloan:

En materia de gastos:

2024ko lehen seihilekoan, BKON gastuen aplikazioan espedienteak izapidetzeko prozedurak eguneratzen eta erantsitako dokumentazioa eta aplikazio informatikoa bera aztertzen jarraitu da, sailen laguntzarekin, egungo egoera juridikora hobeto egokitzeko. Aldi berean, eraginkortasun tekniko egokia lortu nahi izan da.

En el primer semestre de 2024 se ha continuado con la actualización de los procedimientos de tramitación de los expedientes en la aplicación de gastos BKON, analizando la documentación anexada y la aplicación informática en si, en colaboración con los departamentos, en aras de una mayor adecuación a la realidad jurídica actual coordinado con mejoría de la eficiencia técnica adecuada.

Lanaren antolaketa eta banaketa maximizatu da, eta, horri esker, murriztu egin ahal izan da espedienteak izapidetzeko denbora.

Se ha maximizado la organización y distribución del trabajo lo que permite disminuir el tiempo de tramitación de los expedientes.

Espedienteak izapidetzeko erritmoa hil bakoitzaren hasieran planifikatutakoaren araberakoa izan da, eta ordainketetarako ezarritako egutegira egokitu da.

El ritmo de tramitación de los expedientes se ha llevado a cabo según lo planificado al principio de cada mes, adecuándose al calendario de pagos establecido.

2024ko ekitaldia aurrez ikusitako datetan hasi zen. A dokumentuak sailen beharrekin koordinatuta izapidetu dira, eta Gobernu Kontseiluaren gaiak aurrez ikusitakoaren arabera izapidetu dira.

La apertura del ejercicio 2024 se llevó a cabo en las fechas previstas. La tramitación de los documentos A se ha llevado a cabo coordinada con las necesidades de los departamentos y la tramitación de los asuntos de Consejo de Gobierno se ha cumplido según las previsiones.

Era berean, gobernu-kontseiluaren aplikazioarekin koordinatuta, kreditu-erreserbak izapidetzeko prozesu berri bat ezarri da, eguneko gai-zerrendan sartu aurretik kontabilizatuta egon daitezen

Asimismo, se ha implementado un nuevo proceso de tramitación de las reservas de crédito para que estén contabilizadas previamente a su inclusión en el orden del día, en coordinación con la aplicación del consejo de gobierno.

Ezarritako prozedurei esker, Next Generation espedienteak behar bezain azkar izapidetu ahal izan dira. Bkon gunean ohar bat ezarri da informatikoki, espediente hori NG dela dioena, sarrera-erretiluan begiratu batean identifikatu ahal izateko.

Los procedimientos implantados han permitido tramitar los expedientes Next Generation con la rapidez requerida. Se ha implantado informáticamente en bkon un aviso de que ese expediente es NG y poder ser identificado como tal a simple vista en la bandeja de entrada.

BKONeko espedienteetan sinadura elektronikoa eta faktura elektronikoa erabiltzeak erraztu egin ditu lanerako prozedurak eta denbora aurreztu da espedienteen tramitazioan.

El uso de la firma electrónica y de la factura electrónica en la tramitación de los expedientes de BKON facilita la simplificación de los procedimientos de trabajo y un ahorro de tiempo en la tramitación de los expedientes.

Kontratazio-mahaien fiskalizazioa telematikoki egiten jarraitzen da, eta, beraz, izapidetzeko denbora laburtu egin da, ez baita joan-etorririk behar. Lanerako prozedurak hobetzen jarraitu da.

La fiscalización de las mesas de contratación se sigue realizando de manera telemática, con lo que los tiempos para su tramitación han sido reducidos evitando desplazamientos, y se han seguido mejorando los procedimientos de trabajo.

Bkon-en esteka bat (pixelware) sartzeko prozesua hasita dago, espedienteetako dokumentazio guztia bkon-en erantsita eta espedientean zentralizatuta gera dadin.

Está en proceso la inclusión en bkon de un enlace con pixelware, para que quede toda la documentación de los expedientes anexada en bkon y centralizada en el expediente.

BKONen itzulketen modulua hobetzen jarraitu da, eta horrek kontabilitatearen hileko itxierak errazten ditu. Nominen eta itzulketen kontabilitatea informatikoki hobetzeko lan egiten ari da.

Se ha continuado con la mejora del módulo de reintegros en BKON, lo que facilita los cierres mensuales de la contabilidad. Se está trabajando en mejorar informáticamente la contabilidad de nóminas y reintegros correspondientes

Ef4ktur programa Batuz kudeaketa-programara eta TicketBai fakturazio-sistemara egokituta dago.

El programa ef4ktur está adaptado al programa de gestión Batuz y al sistema de facturación TicketBai.

Eskuzko prozedura bat ezarri da fiskalizaziorako eta kontabilizaziorako aplikazio informatikorik ez egoteak dakarren hutsunea betetzeko.

Se ha instaurado un procedimiento manual que suple la ausencia de aplicación informática para la fiscalización y contabilización.

KLTZrekiko komunikazioa hobetu da jasotako errekerimendu judizialak betetzeari dagokionez.

Se ha mejorado la comunicación con la SCAT para dar cumplimiento a los requerimientos judiciales recibidos.

Hartzekodunen fitxen izapideak hobetzen jarraitu da, baita kontu korronteen onespenerako izapideak ere.

Se continua con la mejora en la tramitación de las fichas de acreedor, así como con el visto bueno de las cuentas corrientes.

2. Auditoretza Zerbitzuaren jarduketak 2024ko lehen seihilekoan

2. Actuaciones del Servicio de Auditoría en el primer semestre de 2024

2024ko lehen seihilekoan egindako jarduketak bat datoz ekitaldi horretarako Auditoretzen Urteko Planean (AUP) eta Kudeaketan Laguntzeko Jardueren (KLJ) dokumentuan egindako plangintzekin. Ekitaldirako aurreikusitako jarduketa guztiak hasi ez badira ere, dagoeneko amaituta daudenek edo garatzeko fasean daudenek erantzun hauek ematen dituzte funtsean:

Las actuaciones ejecutadas a lo largo del primer semestre de 2024 responden a las planificaciones realizadas en el Plan Anual de Auditorias (PAA) y en el documento de Actuaciones de Apoyo a la Gestión (AAG) para dicho ejercicio. Si bien no todas las actuaciones previstas para el ejercicio han sido iniciadas, aquellas que ya han sido finalizadas o se hallan en fase de desarrollo responden básicamente:

— Foru enpresa-sektore publikoa osatzen duten entitateen 2023ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldi ekonomikoari buruzko finantzen auditoretzako txostenen jarraipena eta kontrola, aurrekontuen, kontratazioaren, langileen, saldoen kontziliazioaren eta gomendio eta iradokizunen arloko legezkotasuna betetzea.

— A funciones de seguimiento y control de los informes de auditoría financiera, cumplimiento de la legalidad en materia presupuestaria, de contratación, de personal, de conciliación de saldos y de recomendaciones y sugerencias, relativas al ejercicio económico cerrado al 31 de diciembre de 2023, de las entidades que conforman el Sector Público empresarial Foral.

— Aurreko puntuan adierazitako erakundeen jarraipenaren eta kontrolaren gaineko txostena egiteko eskubidea, kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren eta legezkotasuna betetzearen ikuspegitik.

— BFAko sailek aldez aurreko fiskalizazioaren mende ez dauden espedienteak (kontratu txikiak eta dirulagguntza zuzen izendunak) izapidetzean legezkotasuna betetzeari buruzko txostenak egiteko eskubidea.

— Laguntza-jarduketak, hau da, BFAko sailek dirulagguntzak emateko, justifikatzeko eta egiaztatzeko prozedurei buruz egindako kontsultei ahoz eta idatziz erantzutea, lankidetza-hitzarmenak egiteari dagokionez, eta abar.

— AdConcordiam Ekonomia Ituna sustatzeko eta hedatzeko elkartearen (Bizkaiko Foru Aldundiaren partaidetza duen erakundea) 2023ko ekitaldi ekonomikoko urteko kontuen auditoretza-txostena egitea.

— Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatutako proiektuei egotzitako kostuen eta diru-sarreren kontrol ekonomikoko txostenak egiteari.

— Ogasun eta Finantza Saileko bulego zentraletako ingurumen-auditoretzaren txostena egiteko eskubidea.

— HKEEren eta BFAren sailen arteko harremanak koordinatzeari, 2022ko (HKEEren fiskalizazio-txostenari alegazioak bidaltzea) eta 2023ko (HKEEk eskatutako informazioa bidaltzea) Kontu Orokorraren berrikuspena dela eta.

Next Generation funtsekin finantzatutako jarduketekin lotutako auditoretza- eta kudeaketa-eremuari dagokionez, honako jarduera hauek egin dira:

— A la elaboración de un informe de seguimiento y control, desde el punto de vista de la gestión económico-financiera y del cumplimiento de la legalidad, de las entidades que se indican en el punto anterior.

— A la emisión de informes de cumplimiento de legalidad en la tramitación de expedientes no sujetos a fiscalización previa (contratos menores y subvenciones directas nominativas) por parte de los departamentos de la DFB.

— A actuaciones de apoyo consistentes en dar respuesta verbal y escrita a consultas sobre aspectos de los procedimientos de concesión, justificación y comprobación de subvenciones, con respecto a la elaboración de convenios de colaboración, etc. realizadas desde los distintos departamentos de la DFB.

— Elaborar informe de auditoría de cuentas anuales del ejercicio económico 2023 de la Asociación para la Promoción y Difusión del Concierto Económico AdConcordiam (entidad participada por la Diputación Foral de Bizkaia).

— A la elaboración de informes de control económico de costes e ingresos imputados a proyectos financiados por la Diputación Foral de Bizkaia.

— A la elaboración del informe de la auditoría medioambiental de las oficinas centrales del Departamento de Hacienda y Finanzas.

— A la coordinación de las relaciones del TVCP con los distintos departamentos de la DFB con motivo de la revisión de la Cuenta General de los años 2022 (envío de alegaciones al Informe de fiscalización del TVCP) y del 2023 (envío de la información solicitada por el TVCP).

En cuanto al ámbito de auditoría y apoyo a la gestión relacionado con actuaciones financiadas con fondos Next Generation, se han realizado las siguientes actuaciones:

- Bitarteko propioei enkargu gisa izapidetutako eta Next Generation funtsekin finantzatutako gastu-espedienteen auditoria.
- Hitzarmen gisa izapidetutako eta Next Generation funtsekin finantzatutako gastu-espedienteen auditoretza.
- Bizkaiko Foru Aldundiak emandako eta Next Generation funtsekin batera finantzatutako dirulaguntzen finantza-kontroleko txostenak egitea
- Next Generation EU funtsekin batera finantzatutako proiektuen kudeaketarekin zerikusia duten zereginetan laguntzea, baita Bizkaiko Foru Aldundiak funts horiek Europako araudia betez kudeatzen direla bermatzeko hartu beharreko neurriak ezartzearekin zerikusia dutenetan ere.

3. Aurrekontu eta Kontabilitate Zerbitzuaren jarduketak 2023ko lehen seihilekoan.

Aurrekontu Zerbitzuak kudeatzen du arloa, eta aurrekontuen prestaketa eta jarraipena egiteko zein Foru Aldundiaren eduki ekonomikoko xedapenak kontrolatzeko lanak egiten dira.

Zerbitzuaren erantzukizuna da:

a) Aurrekontu Orokorrak egiteko jarraibide ekonomikoak eta teknikoak proposatzea.

b) Foru Administrazioko nahiz Administrazio Instituzionaleko organoak koordinatzea, beren aurrekontuei dagokienez.

c) Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren Aurreproiektuaren zirriborroa egitea.

- Auditoría de expedientes de gasto tramitados como encargos a medios propios y financiados con fondos Next Generation.
- Auditoría de expedientes de gasto tramitados como convenios y financiados con fondos Next Generation.
- Elaborar informes de control financiero de subvenciones concedidas por la Diputación Foral de Bizkaia y cofinanciadas con fondos Next Generation
- Colaborar y dar apoyo en tareas relacionadas con la gestión de los proyectos cofinanciados por los fondos Next Generation EU, así como en aquellas relacionadas con el establecimiento de medidas a adoptar por la Diputación Foral de Bizkaia para garantizar que dichos fondos se gestionen cumpliendo la normativa europea.

3. Actuaciones del Servicio de Presupuestos y Contabilidad en el primer semestre de 2023.

En esta área, gestionado por el Servicio de Presupuestos, se realizan los trabajos tendentes tanto a la preparación y seguimiento de los Presupuestos, como al control de las disposiciones de contenido económico de la Diputación Foral.

Es responsabilidad del Servicio:

a) La propuesta de las directrices económicas y técnicas para la elaboración de los Presupuestos Generales.

b) La coordinación de los distintos órganos, tanto de la Administración Foral como Institucional, en lo que se refiere a sus propios Presupuestos.

c) La elaboración del borrador del Anteproyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico.

d) Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kontrola eta jarraipena.

e) Gastu-programen azterketa eta ebaluazioa.

f) Aurrekontuekin lotura zuzena duten argitalpenak prestatzea.

g) Aurrekontuen Foru Arau Orokorraren testu bateginean xedatutakoaren arabera txostena egin behar zaien garrantzi ekonomikoko eragiketen aurrekontu-kontroleko txostenak egitea.

h) BFAko sailen dirulagguntzen plan estrategikoak gainbegiratzea, baita 2023ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan onartutako dirulagguntza izendunen egozpen zuzena ere.

Aldi berean, 2023ko ekitaldiko likidazioaren (Kontu Orokorra) aurkezpenean lan egin da, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko ekainaren 27an (asteartea) onartu zuen.

4. Laguntza eta Aholkularitza Zerbitzuaren jarduketak 2024ko lehen seihilekoan.

Honako zerbitzu honek, besteak beste, Zuzendariordetzako unitateekin lan egiten du prozedurak hobetzeko proposamenak egiteko, administrazio-arrazionalizazioko proiektuen jarraipena egiten du mekanizatu beharreko prozesuak detektatzeko, aplikazio informatikoak garatzeko eta/edo aldatzeko beharrari buruzko txostenak egiten ditu eta aipaturiko aplikazio horiek diseinatzen eta mantentzen laguntzen du, baita unitate hartzaileekin eta dagozkion informatika enpresekin ezartzen eta abian jartzen ere.

d) El control y seguimiento de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia.

e) El análisis y evaluación de los Programas de Gasto.

f) La preparación de las publicaciones relacionadas directamente con los Presupuestos.

g) Realización de informes de control presupuestario a las operaciones de transcendencia económica que se deban informar según lo dispuesto en el Texto Refundido de la Norma Foral General Presupuestaria.

h) Supervisión de los Planes estratégicos de subvenciones de los Departamentos de la DFB, así como de la correcta imputación de las subvenciones nominativas aprobadas en los Presupuestos Generales del ejercicio 2023.

De forma paralela se ha trabajado en la presentación de la liquidación del ejercicio 2023 (Cuenta General), quedando aprobado por el Consejo de Gobierno el martes, día 27 de junio de 2024.

4. Actuaciones del Servicio de Asistencia y Asesoramiento en el primer semestre de 2024.

Desde este servicio, entre otras tareas, se colabora con las distintas unidades de la Subdirección en la elaboración de propuestas de mejora de procedimientos, se realiza el seguimiento de proyectos de racionalización administrativa con el fin de detectar procesos a mecanizar, se elaboran informes sobre necesidad de desarrollo y/o modificación de aplicaciones informáticas, colaborando en el diseño y mantenimiento de éstos, así como en la implantación y puesta en marcha con las unidades destinatarias y empresas informáticas correspondientes.

Ildo horretan, ekintza hauek egin dira:

- Gastu- eta sarrera-aurrekontuaren aplikazioaren, kudeaketaren eta exekuzioaren eremuan:
  - 2024ko aurrekontua irekitzeko zereginak.
  - Aurrekontuei buruzko informazio-sisteman hobekuntzak ezartzea
  - CPVak (Comon Procurement Vocabulary) garatzea eta ekoizpenean jartzea kontratu txiki guztietarako.
  - BFA eta GUFE BATUZen integratzeko beharrak aztertzea eta garatzea.
- BKONen kontzeptuei eta oinarrizko prozedurei buruzko on-line ikastaroa eskura jartzea.
- Dirulaguntzen Base Nazionalera bidalitako datuen kalitatearen jarraipena egitea.
- WEBaren aurrekontu-informazioa automatikoki emateko hobekuntzak.
- Aurrekontuko sarrera eta gastuen aginte-taula baten jarraipena.
- Sarreren kontabilitateko datuen kalitatearen jarraipena egitea, datuen jatorrian dagozkion hobekuntzak eginez.
- Lantik-eko taldearekin lan egitea SAPetik HANAra migratzeko.

5. Aholkularitza Juridiko eta Kontrol Ekonomikoko atalaren jarduerak:
   - Araudi hau egitea:
     - Fiskalizazio-prozeduren zirriborroa, kontratu-mota guztiak kontuan hartuta.

En este sentido, se han realizado las siguientes acciones:

- En el ámbito de la aplicación gestión y ejecución del presupuesto del gasto e ingreso:
  - Tareas de apertura del presupuesto 2024
  - Implementación de mejoras en el sistema de información presupuestaria
  - Desarrollo y puesta en producción de los CPVs (Comon Procurement Vocabulary) para todos los contratos menores
  - Implementación de BATUZ para la DFB e IFAS.
- Puesta a disposición el curso on-line sobre Conceptos y Procedimientos básicos de BKON.
- Seguimiento de la calidad de los datos remitidos a la Base Nacional de Subvenciones.
- Mejoras en para la provisión automática de la información presupuestaria de la WEB.
- Seguimiento de un Cuadro de Mando de Ingresos y Gastos presupuestarios.
- Seguimiento de la calidad de los datos de la contabilidad de ingresos, aplicando las mejoras pertinentes en origen de datos.
- Trabajar con el equipo de Lantik en la migración de SAP a HANA.

5. Actuaciones de la Sección de Asesoría Jurídica y Control Económico:
   - Elaboración de la siguiente normativa:
     - Borrador de procedimientos de fiscalización, contemplando toda la tipología de contratos.

– Uztailaren 20ko 105/2021 Foru Dekretua aldatzea; dekretu horren bidez, gobernantza-egitura bat sortzen da eta erregulatzen baitira administrazioa modernizatzeko eta arintzeko neurriak arautzen dira, Europako Next GenerationEU suspertze-tresnatik datozen europar funtsak exekutatzeko

- Dirulaguntzei buruzko dekretuekin, kontrol publikoko sistemekin eta kanpoko erakundeekiko harremanen figura juridikoen aplikazioarekin lotutako hainbat gairi buruzko aholkuak ematea zuzendariordetzari.

- BFAren dirulaguntzei buruzko araudia aztertzea, berdintasunari buruzko araudira eta dirulaguntzen arloko oinarrizko arau-aldaketetara egokitzeko.

– Modificación del decreto foral 105/2021, por la que se crea una estructura de gobernanza y se regulan medidas de modernización y agilización administrativas para la ejecución de los fondos europeos provenientes del instrumento europeo de recuperación Next Generation-EU

- Asesoramiento a la subdirección de diversas cuestiones relacionadas con decretos de subvenciones, sistemas de control público y aplicación de las distintas figuras jurídicas de relaciones con entidades externas.

- Análisis de la normativa de subvenciones de la DFB para su adaptación a la normativa de igualdad y a cambios normativos básicos en el ámbito de las subvenciones.

Saila eta Programa / Departamento y Programa

05	**OGASUNA ETA FINANTZAK** ***HACIENDA Y FINANZAS***
931119	**AURREKONTUAK ETA KONTROL EKONOMIKOA** ***PRESUPUESTOS Y CONTROL ECONÓMICO***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	**EKONOMIA ETA AURREKONTU ARAUDIA GARATZEA ETA AHOLKU EMATEA** ***ASESORAR Y DESARROLLAR NORMATIVA DE RÉGIMEN ECONÓMICO Y PRESUPUESTARIO***			
1	ARAUDIA AZTERTZEA ETA GARAPENAK PROPOSATZEA *ANALIZAR NORMATIVA Y PROPONER DESARROLLOS*			
1	Proposamenen kopurua *Número de propuestas*	5	5	1
2	Egindako txostenen kopurua *Número de informes emitidos*	2	2	1
2	**BIZKAIKO FORU ALDUNDIATEN ETA BERE ADMINISTRAZIO ERAKUNDE AUTONOMIADUNEN EKINTZA ERAGIN EKONOMIKOA DUTENAK FISKALIZATZEA** ***FISCALIZAR LOS ACTOS CON TRASCENDENCIA ECONÓMICA DE LA DIPUTACIÓN FORAL Y SUS ORGANISMOS AUTONOMOS ADMINISTRATIVOS***			
1	DIRU-SARREREN PROZEDURA FISKALIZATZEKO APLIKAZIOA ABIAN JARTZEA *PUESTA EN MARCHA DE LA APLICACIÓN PARA FISCALIZAR EL PROCEDIMIENTO DE INGRESOS*			
1	Aplikazioen kopurua *Número de aplicaciones*	1	1	1
2	DIRU-SARRERA DAKARTEN ESPEDIENTEEN FISKALIZAZIOA *FISCALIZACIÓN DE EXPEDIENTES DE INGRESOS*			
1	Mekanizatutako espdediente kopurua (milatan) *Número de expedientes mecanizados (miles)*	330	330	58
2	Modu mekanikoan tratatutako dokumentuak (milatan) *Documentos tratados mecanizados (miles)*	2.000	2.000	1.501
3	SAILEN SARRERAK (ZERGAZ BESTEKOAK) FISKALIZATZEA. *FISCALIZACIÓN DE INGRESOS DEPARTAMENTALES (NO TRIBUTARIOS).*			
1	Likidazio-altarako espediente kopurua *Número de expedientes de altas de liquidación*	12.000	12.000	8.532
2	Likidazio-baxarako espedienteen kopurua *Número de expedientes de bajas de liquidación*	1.500	1.500	912
3	Likidazio-altetarako agiri kopurua (milatan) *Número de documentos de altas de liquidación (miles)*	350	350	210
4	Likidazio-bajarako agiri kopurua (milatan) *Número de documentos de bajas de liquidación (miles)*	15	15	10
4	ZERGA SARREREN FISKALIZAZIOA *FISCALIZACION DE INGRESOS TRIBUTARIOS*			
1	Espediente kopurua *Número de expedientes*	5.500	5.500	3.912

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
2	Agiri kopurua *Número de documentos*	41.000	41.000	28.901
5	ITZULKETAK ORDAINTZEKO MANAMENDUAK FISKALIZATZEA. *FISCALIZACIÓN DE MANDAMIENTOS DE PAGO DE DEVOLUCIONES.*			
1	Ordainketa mandamenduen kopurua *Número de mandamientos de pago*	60.000	60.000	50.568
6	GASTU ESPEDIENTE, AGIRI EDO EGINTZEN AURRETIAZKO FISKALIZAZIOA. *FISCALIZACIÓN PREVIA DE EXPEDIENTES, DOCUMENTOS O ACTOS DE GASTO.*			
1	Bfaren espediente, agiri edo egintzen kopurua *Número de expedientes, documentos o actos de la Diputación Foral de Bizkaia*	47.000	47.000	20.176
2	Foru erakunde autonomiadun administratiboen espediente, agiri edota egintzen kopurua *Número de expedientes, documentos o actos de los Organismos Autónomos Forales Administrativos*	6.000	6.000	3.211
7	GASTUEN ORDAINKETAREN FISKALIZAZIO MATERIALA. *FISCALIZACIÓN MATERIAL DEL PAGO DE GASTOS.*			
1	Bizkaiko Foru Aldundiaren mandamenduen kopurua *Número de mandamientos de la Diputación Foral de Bizkaia*	33.000	33.000	13.612
2	Foru erakunde autonomiadun administratiboen manamenduen kopurua *Número de mandamientos de los Organismos Autónomos Forales Administrativos*	4.000	4.000	2.673
8	KREDITU ALDARAZPEN ETA ERANSKETEN FISKALIZAZIOA. *FISCALIZACIÓN DE MODIFICACIONES E INCORPORACIONES DE CRÉDITO.*			
1	Bizkaiko Foru Aldundiaren aldaketen kopurua *Número de modificaciones de la Diputación Foral de Bizkaia*	200	200	79
2	Foru erakunde autonomiadun administratiboen aldaketen kopurua *Número de modificaciones de los Organismos Autónomos Forales Administrativos*	15	15	2
3	Bizkaiko Foru Aldundiaren sartzeen kopurua *Número de incorporaciones de la Diputación Foral de Bizkaia*			
4	Foru erakunde autonomiadun administratiboen sartzeen kopurua *Número de incorporaciones de los Organismos Autonómos Forales Administrativos*			
9	GASTUEN FAKTURAK KUDEATZEA. *GESTIÓN DE FACTURAS DE GASTOS.*			
1	Bfaren faktura formalizatuen kopurua *Número de facturas formalizadas de la D.F.B.*	35.000	35.000	17.299
2	Foru erakunde autonomiadun administratiboek formalizatutako fakturen kopurua *Número de facturas formalizadas de los Organismos Autónomos Forales Administrativos*	12.000	12.000	5.831
10	PLANTILAREN FISKALIZAZIOA. *FISCALIZACIÓN DE PLANTILLA.*			
1	Bizkaiko Foru Aldundiaren esku-hartzearen mendeko eskabideen kopurua *Número de solicitudes intervenidas de la Diputación Foral de Bizkaia*	2.000	2.000	1.691
2	Foru erakunde autonomiadun administratiboen esku-hartzearen mendeko eskabideen kopurua *Número de solicitudes intervenidas de los Organismos Autónomos Forales Administrativos*	1.200	1.200	230
3	Bizkaiko Foru Aldundiko plazen gainean eginiko txostenen kopurua *Número de informes de plazas realizados de la Diputación Foral de Bizkaia*	50	50	160
4	Egindako faeen lanpostuen txostenen kopurua. *Número de informes de plazas realizados de los OO.AA.FF.AA.*	35	35	18

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
3	**FORU-SEKTORE PUBLIKOAREN EKONOMIA- ETA FINANTZA-JARDUERA KONTROLATZEA, EGIN ETA GERO, AUDITORIA-PROZEDUREN BIDEZ** ***EJERCER EL CONTROL, A POSTERIORI, DE LA ACTIVIDAD ECONÓMICO Y FINANCIERA DEL SECTOR PÚBLICO FORAL MEDIANTE PROCEDIMIENTOS AUDITORÍA***			
1	URTEKO AUDITORIA-PLANA EGITEA *ELABORACIÓN DEL PLAN ANUAL DE AUDITORIAS*			
1	Egindako plan kopurua *Número de Planes elaborados*	1	1	1
2	BFAREN SPE ENPRESEN JARRAIPENA ETA KONTROLA, AAEEN AUDITORIA-TXOSTENEN ANALISIARI, AURREK.-LEGEZKOTASUNARI, EG. EKON.-FINANT.ARI BURUZKO TXOSTEN BIDEZ *SEGUIMIENTO Y CONTROL ENTIDADES S.P.E. DE LA DFB, ELABORANDO INFORME DE ANÁLISIS DE INFORMES DE AUDITORIA DE CCAA,CUMPL.LEGALIDAD PRESUP.,SIT.Eº-FRA..*			
1	BFA-ko enpresa-sektore publikoko erakunde kopurua *Número de entidades del sector público empresarial de la DFB*	20	20	20
2	BFA-ko enpresa-sektore publikoko erakundeen ehunekoa *Porcentaje de entidades del sector público empresarial de la DFB*	100	100	100
3	BFA-K EMANDAKO DIRULAGUNTZEN FINANTZA-KONTROLARI BURUZKO TXOSTENAK EGITEA *ELABORAR INFORMES DE CONTROL FINACIERO SOBRE SUBVENCIONES CONCEDIDAS POR LA DFB.*			
1	Kontrolak eragiten dien sail kopurua *Número de departamentos a los que afecta el control*	3	3	2
2	BFAkoak ez diren erakundeek egindako proiektuetatik, kontrolatu direnen kopurua *Número de proyectos controlados, desarrollados por entidades ajenas a la DFBa la DFB*	9	9	5
3	BFAren partaidetza duten erakundeek garatutako proiektuetatik, kontrolatu direnen kopurua *Número de proyectos controlados, desarrollados por entidades participadas DFB*	1	1	1
4	Next Generation funtsekin finantzatutako proiektu kontrolatuen kopurua *Número de proyectos controlados cofinanciados con fondos Next Generation*	8	8	5
4	AURRETIAZKO FISKALIZAZIORIK IZAN BEHAR EZ DUTEN ESPEDIENTEEN LEGEZKOTASUNARI BURUZKO AUDITORIAK EGITEA *ELABORAR AUDITORIAS DE CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD SOBRE EXPEDIENTES NO SUJETOS A FISCALIZACIÓN PREVIA*			
1	2022an kontratu txikiei dagokien kontrola egin zaien sailen kopurua *Número de departamentos objeto de control de contratos menores año 2022*	4	4	3
2	2022 kontrola egin zaien kontratu txikien lagineko espediente-kopurua *Número de expedientes de la muestra de contratos menores del 2022 objeto de control*	400	400	243
3	Next Generation funtsekin finantzatutako kontratu txikien laginaren espedienteen kopurua *Número de expedientes de la muestra de contratos menores cofinanciados con fondos Next Generation*	8	8	7
4	Zuzeneko dirulaguntza izendunen kontrolaren xede diren sailen kopurua *Número de Departamentos objeto de control de subvenciones directas nominativas*	3	3	
5	Kontrolaren xede diren zuzeneko dirulaguntza izendunen espedienteen kopurua *Número de expedientes de Subvenciones directas nominativas objeto de control*	4	4	
5	HITZARMEN GISA IZAPIDETUTAKO GASTU-ESPEDIENTEEN IZAPIDEETAN LEGEZKOTASUNA BETE DELA EGIAZTATZEKO AUDITORIAK EGITEA *ELABORAR AUDITORIAS DE CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD EN LA TRAMITACIÓN DE EXPEDIENTES DE GASTO TRAMITADOS COMO CONVENIOS*			
1	Eragindako sail kopurua *Número de departamentos afectados*	1	1	1
2	Hobetzeko aztertutako espediente-kopurua *Número de expedientes analizados para su mejora*	1	1	2

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
3	Next Generation funtsekin finantzatu diren aztertutako espedienteen kopurua *Número de expedientes analizados cofinancieros con fondos Next Generation*	1	1	1
6	TRANSFERENTZIA MODUAN IZAPIDETUTAKO GASTU-ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEAN LEGEZKOTASUNA BETETZEKO AUDITORIAK EGITEA *ELABORAR AUDITORIAS DE CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD EN LA TRAMITACIÓN DE EXPEDIENTES DE GASTO TRAMITADOS COMO TRANSFERENCIAS*			
1	Ukitutako sail-kopurua *Número de departamentos afectados*	1	1	
2	Hobetzeko aztertu diren espedienteen kopurua *Número de expedientes analizados para su mejora*	1	1	
3	Hobetzeko aztertu diren Next Generation funtsekin finantzatutako espedienteen kopurua *Número de expedientes analizados cofinanciados con fondos Next Generation*	1	1	
7	ENKARGU MODUAN (NEXT GENERATION) IZAPIDETUTAKO GASTU-ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEAN LEGEZKOTASUNA BETETZEKO AUDITORIAK EGITEA *ELABORAR AUDITORIAS DE CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD EN LA TRAMITACIÓN DE EXPEDIENTES DE GASTO TRAMITADOS COMO ENCARGOS (NEXT GENERATION)*			
1	Aztertutako sailen kopurua *Número de Departamentos analizados*	2	2	1
2	Hobetzeko aztertu diren espedienteen kopurua *Número de expedientes analizados para su mejora*	2	2	1
3	Hobetzeko aztertu diren Next Generation funtsekin finantzatutako espedienteen kopurua *Número de expedientes analizados cofinanciados con fondos Next Generation*	2	2	1
8	DIRULAGUNTZEN EDO SAILEK HAIEI BURUZ EGINDAKO EGUNERATZEEN PLAN ESTRATEGIKOEI BURUZKO BERRIKUSPEN TXOSTENAK EGITEA *ELABORAR INFORMES DE REVISION DE LOS PLANES ESTRATEGICOS DE SUBVENCIONES O DE SUS ACTUALIZACIONES ELABORADOS POR DEPARTAMENTOS D*			
1	Ukitutako planen kopurua *Número de los Departamentos afectados*	1	1	1
9	DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN (2020-2023) EBALUAZIO GLOBALAREN BERRIKUSPEN TXOSTENAK EGITEA *ELABORAR INFORMES DE REVISION DE LA EVALUACIÓN GLOBAL DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES (2020-2023)*			
1	Ukitutako planen kopurua *Número de Departamentos afectados*	10	10	
10	JARRAIPEN JARDUKETAK EGITEA *REALIZAR ACTUACIONES DE SEGUIMIENTO*			
1	Jarraipen eta kontrolaren xede diren proiektuen kopurua *Número de proyectos objeto de seguimiento y control*	2	2	2
4	**BFA-REN ZENBAIT ARLOTAN KUDEAKETA HOBETZEKO LAGUNTZA EMATEA** ***FACILITAR Y CONTRIBUIR A LA MEJORA DE LA GESTIÓN EN DIVERSAS ÁREAS DE LA DFB***			
1	KUDEAKETARI LAGUNTZEKO JARDUKETEN DOKUMENTUA EGITEA *ELABORAR EL DOCUMENTO DE ACTUACIONES DE APOYO A LA GESTIÓN*			
1	Jarduketei buruzko dokumentu kopurua (egindakoak) *Número de documentos de actuaciones de apoyo elaborados*	1	1	1
2	DIRULAGUNTZAK, HITZARMENAK DIRELA-ETA, EMATEKO, JUSTIFIKATZEKO ETA EGIAZTATZEKO PROZEDUREKIN LOTURA DUTEN ALDERDIEI BURUZKO AHOLKULARITZA *ASESORAR EN ASPECTOS RELACIONADOS CON LOS PROCEDIMIENTOS DE CONCESIÓN, JUSTIFICACIÓN Y COMPROBACIÓN DE SUBVENCIONES,CONVENIOS, ETC.*			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	Hartutako kontsulta kopurua *Número de consultas atendidas*	65	65	42
3	NEXT GENERATION-EKIN LOTUTAKO ALDERDIEI BURUZKO AHOLKULARITZA *ASESORAR EN ASPECTOS RELACIONADOS CON LOS NEXT GENERATION*			
1	Hartutako kontsulta kopurua *Número de consultas atendidas*	60	60	16
4	INGURUMEN-AUDITORIEN TXOSTENAK EGITEA (ISO 14001) *REALIZAR INFORMES DE AUDITORÍAS MEDIOAMBIENTALES (ISO 14001)*			
1	Ebaluatutako kudeaketa-sistemen kopurua *Número de sistemas de gestión valorados*	1	1	1
5	BFA-REN PARTAIDETZA DUTEN ERAKUNDEEN JARRAIPENA EGITEA ETA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ETA HAIEN EGOERA EAUDITORIA TXOSTENEI BURUZKO ANALISI TXOSTENAK EGITEA *REALIZAR SEGUIMIENTO DE LAS ENT.PARTICIPADAS POR DFB Y ELABORAR INFORME DE ANÁLISIS DE INFORMES DE AUDITORIA DE CCAA Y SITUACIÓN Eº.FRA DE LAS MISMAS*			
1	Erakunde partaidetuen kopurua *Número de Entidades participadas*	66	66	
6	ESPEF-EN ERAKUNDEEN 2024KO KONTROL-TXOSTENEN KONTRATAZIORAKO PLEGUEN ZIRRIBORROAK BERRIKUSTEA *REALIZAR REVISION DE BORRADOR PLIEGOS PARA LA CONTRATACION DE LOS INFORMES DE CONTROL 2024 DE LAS ENTIDADES DEL ESPEF*			
1	2024an pleguak berrikusiko zaizkien ESPEFen erakundeen kopurua *Número de entidades de la ESPEF a las que se les revisará los pliegos en 2024*	3	3	3
7	BFAK FINANTZATUTAKO PROIEKTUEI EGOTZITAKO KOSTUEN ETA SARREREN KONTROL EKONOMIKOARI BURUZKO TXOSTENAK EGITEA (HITZARMENAK, EZUSTEKOAK...) *ELABORAR INFORMES DE CONTROL ECONÓMICO DE COSTES E INGRESOS IMPUTADOS A PROYECTOS FINANCIADOS POR LA DFB (CONVENIOS, IMPREVISTOS...)*			
1	Ukitutako sail/erakunde autonomoen kopurua *Número de departamentos/organismos autónomos afectados*	2	2	1
2	Kostuak egiaztatzen zaizkien zerbitzu-prestazioen zentroen kopurua *Número de centros de prestación de servicios cuyos costes son verificados*	6	6	2
3	Next Generation funtsekin kofinantzatutako proiektu egiaztatuen kopurua *Número de proyectos verificados cofinanciados con fondos Next Generation*	1	1	
8	HKEE-REKIN KOORDINAZIO-LANAK EGITEA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO 2019KO ETA 2020 KONTU OROKORRA FISKALIZATZEKO *REALIZAR TRABAJOS DE COORDINACION CON EL TVCP-HKEE CON MOTIVO DE LA FISCALIZACION DE LA CUENTA GENERAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA 2019 Y 2020*			
1	Koordinatutako foru-sektore publikoko erakunde kopurua *Número de entidades del sector público foral coordinadas*	22	22	22
2	Koordinatutako foru-sektore publikoko erakundeen ehunekoa *Porcentaje de entidades del sector público foral coordinados*	100	100	100
9	2023 PAA-AAG-K EGINDAKO JARDUKETEI BURUZKO MEMORIAK EGITEA *ELABORAR MEMORIAS SOBRE ACTUACIONES REALIZADAS DEL PAA-AAG 2023*			
1	Egindako memorien kopurua *Número de memorias elaboradas*	1	1	1
5	**SPRREN AURREKONTUA EGITEKO KUDEAKETA EGOKIA DELA BERMATZEA** ***GARANTIZAR LA ADECUADA GESTIÓN DE LA ELABORACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL SPF***			
1	SPFREN AURREKONTUA EGITEKO PROZEDURAK *PROCEDIMENTAR ELABORACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL SPF*			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	Garatutako prozeduren % *% Procedimientos desarrollados*	10	10	
2	SAILEKIKO KOMUNIKAZIOA BULTZATZEA *POTENCIAR LA COMUNICACION CON LOS DEPARTAMENTOS*			
1	Jakinarazpenak/bilerak *Número de comunicaciones/reuniones*	16	16	
6	**AURREKONTUAK EGIN ETA BETEARAZTEKO APLIKAZIOAREN DATUEN PROZESUA ETA KALKULUA ARINTZEA** ***AGILIZAR EL PROCESAMIENTO, CÁLCULO Y PROCESAMIENTO DE DATOS DE LA APLICACIÓN DE PRESUPUESTACIÓN Y EJECUCIÓN DEL PRESUPUESTO***			
1	RP3 SAP HANA-RA MIGRATZEA *MIGRAR RP3 A SAP HANA*			
1	Sistema berean oinarritutako garapen berrien kopurua *Número de nuevos desarrollos basados en el nuevo sistema*	2	2	
2	INFORMAZIO SISTEMA SAP HANA-RA MIGRATZEA *MIGRAR SISTEMA DE INFORMACIÓN A SAP HANA*			
1	Migratu diren txostenak *Informes migrados*	30	30	
7	**AURREKONTUAREN INFORMAZIO SISTEMA HOBETZEA (MEMORIAK, HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK)** ***MEJORAR EL SISTEMA DE INFORMACIÓN DEL PRESUPUESTO (MEMORIAS, OBJETIVOS, ACCIONES E INDICADORES)***			
1	PROGRAMETAKO HELBURUAK, EKINTZAK ETA ADIERAZLEAK AZTERTZEA *ANALIZAR OBJETIVOS, ACCIONES E INDICADORES DE LOS PROGRAMAS*			
1	Aztertutako programen % *% Programas analizados*	10	10	10
2	EXEKUZIO MEMORIAK AZTERTZEA *ANALIZAR MEMORIAS DE EJECUCIÓN*			
1	Aztertutako programen % *% Programas analizados*	10	10	10
8	**SPFREN KONTU OROKORRA EGOKI EGIN ETA KITATZEN DELA BERMATZEA** ***GARANTIZAR LA ADECUADA ELABORACIÓN Y RENDICION DE LA CUENTA GENERAL DEL SPF***			
1	KONTU OROKORRA EGITEKO PROZEDURAK AZTERTU ETA IDENTIFIKATZEA *ANALIZAR E IDENTIFICAR LOS PROCESOS DE ELABORACIÓN DE LA CUENTA GENERAL*			
1	Eginiko prozedurak, ehunekoa *Porcentaje de procedimientos elaborados*	10	10	10
2	HERRI KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK EGINIKO GOMENDIOAK JASOTZEA *INCORPORAR LAS RECOMENDACIONES REALIZADAS POR EL TRIBUNAL VASCO DE CUENTAS*			
1	Jasotako gomendioen kopurua *% recomendaciones incorporadas*	100	100	100
3	HKEEK EGITEN DITUEN ESKAEREI ERANTZUTEA. *ATENCION A LAS DEMANDAS QUE FORMULA EL TVCP.*			
1	Kontsulten kopurua *Número de consultas*	50	50	50
9	**FORU ADMINISTRAZIOKO SEKTORE PUBLIKOAREN EKONOMIA ETA AURREKONTU KUDEAKETAREN BERRI EMATEA** ***INFORMAR SOBRE LA GESTIÓN ECONOMICA Y PRESUPUESTARIA DEL SECTOR PUBLICO ADMINISTRATIVO FORAL***			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	TXOSTENAK EGITEA: ZERGA-BILKETA, EXEKUZIOA, ZORRA *ELABORAR INFORMES SOBRE RECAUDACIÓN, EJECUCIÓN, EV. DEUDA*			
1	Batzar Nagusietarako txostenak *Nº informes para Juntas Generales*	12	12	5
2	BFAko zuzendaritza organoentzako txostenak *Nº informes para órganos directivos de la DFB*	43	43	21
3	Eusko Jaurlaritza eta beste erakunde batzuetarako txostenak *Nº informes para Gobierno Vasco y otras instituciones*	23	23	12
10	**ENPRESAREN SEKTORE PUBLIKOAREN KUDEAKETAREN BERRI EMATEA** ***INFORMAR SOBRE LA GESTIÓN DEL SECTOR PUBLICO EMPRESARIAL***			
1	EPE LUZERAKO ZORPETZE OPERAZIOEN GAINEKO TXOSTENAK EGITEA ETA ONDAREAREN KONTABILITATE INFORMAZIOA *ELABORAR INFORMES SOBRE LAS OPERACIONES DE ENDEUDAMIENTO A LARGO PLAZO E INFORMACIÓN PATRIMONIAL CONTABLE*			
1	Batzar Nagusietarako txostenak *Número de informes para Juntas Generales*	4	4	2
11	**AURREKONTUA KUDEATZEKO APLIKAZIOA ERABILTZEN DUTENEN PRESTAKUNTZA HOBETZEA** ***MEJORAR LA FORMACIÓN DE LAS PERSONAS USUARIAS DE LA APLICACIÓN DE GESTIÓN PRESUPUESTARIA***			
1	ESKULIBURUAK ERABILTZAILE GUZTIEN ARTEAN HEDATZEA BKON APLIKAZIOAREN BIDEZ *DIFUNDIR MANUALES A TODAS LAS PERSONAS USUARIAS A TRAVÉS DE LA APLICACIÓN BKON*			
1	Informatzen diren prozeduren/arloen kopurua *Número de procedimientos/áreas sobre las que se informa*	5	5	5
12	**NEXT FUNTSEKIN FINANTZATUTAKO GASTU-PROIEKTUAK MODU ERAGINKORREAN KONTROLATZEA** ***CONTROLAR DE FORMA EFICAZ LOS PROYECTOS DE GASTO FINANCIADOS CON FONDOS NEXT***			
1	TRAMITAZIO-GIDAK EGUNERATZEA *ACTUALIZACIÓN DE GUÍAS DE TRAMITACIÓN*			
1	Eguneratuako gida kopurua *Número de guias actualizadas*	5	5	
2	SAIL KUDEATZAILEEN LAGUNTZA *ASISTENCIA DE DEPARTAMENTOS GESTORES*			
1	Bileren kopurua *Número de reuniones*	5	5	
13	**BFA-REN ETA GUFE-REN AURREKONTU DATUEN GARDENTASUNA SUSTATZEA** ***PROMOVER LA TRANSPARENCIA DE LOS DATOS PRESUPUESTARIOS DE LA DFB E IFAS***			
1	BFA ETA GUFE BATUZ SISTEMAN TXERTATZEA *INCORPORAR A LA DFB E IFAS AL SISTEMA BATUZ*			
1	Jaso eta eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuetara bidaitako fakturen % *% de facturas recibidas y enviadas a los libros de registro de operaciones económicas*	100	100	90
2	EUSKO JAURLARITZAKO ERAKUNDEEI ETA MINISTERIOEI INFORMAZIOA EMATEA *INFORMAR A ENTIDADES/ORGANISMOS DEL GOBIERNO VASCO Y MINISTERIOS*			
1	Informazioa jaso duten erakundeen/organismoen kopurua *Número de entidades/organismos informados*	5	5	
3	INFORMAZIOA BFA-REN WEBGUNEAN JARTZEA *INFORMAR EN LA WEB CORPORATIVA DE DFB*			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	Diru-sarrera eta gastuen hileko exekuzioa *Ejecuciones mensuales de ingresos y gastos*	12	12	6
4	DAGOZKION DATU IREKIAK HERRITARREN ESKU JARTZEA *PONER A DISPOSICIÓN DE LA CIUDADANÍA LOS DATOS ABIERTOS CORRESPONDIENTES*			
1	Diru-sarrera eta gastuen hileko exekuzioa *Ejecuciones mensuales de ingresos y gastos*	12	12	6

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena Aldia: Urtarrila - Ekaina
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto *Periodo:* *Enero - Junio*

Saila		**OGASUNA ETA FINANTZAK**
Departamento	**05**	**HACIENDA Y FINANZAS**
Programa		**Ondarearen kudeaketa eta Arrriskuen aurreneurriak**
Programa	**933.125**	***Gestión del Patrimonio y Prevención de riesgos***

Ondare Zerbitzuak 2024. urterako Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorren Memorian ezarritako helburuak erreferentziatzat hartuta, ekitaldi ekonomiko honen lehen seihilekoan 933.125 programa gauzatzeko egin diren honako jarduketa hauek nabarmendu behar dira:

1.- Foru Ondarea osatzen duten ondasunen eta eskubideen kontrol zehatza.

Horri dagokionez, hauexek bereizi behar dira:

9º) En cuanto al objetivo "Promover la participación social en la erradicación de la violencia contra las mujeres" y que se concreta en la acción "Mantenimiento de una Red de Mediadoras Sociales", a fecha 30 de junio de 2024 el número de Convenios con Asociaciones ha sido de 17, el número de personas formadas como mediadoras sociales ha sido de 27, las mujeres víctimas que han recibido apoyo y acompañamiento han sido 31 y el número de charlas informativas y de sensibilización ha sido de 38.

10) "Familien kalteberatasun handiko egoerak prebenitzea" helburua honako ekintza honetan gauzatu da: "Familiekin esku-hartze psikosozialeko proiektu bat garatzea, banakakoa edo taldekoa". 400 esku-hartze soziodedukatibo eta psikosozial izan dira, eta 57 familia artatu dira.

10º) El objetivo de “Prevenir situaciones de alta vulnerabilidad de las familias”, se ha concretado en la acción de “Desarrollar un proyecto de intervención psicosocial, individual, grupal con las familias”. El número de intervenciones sociodeducativas y psicosociales han sido 400, y el número de familias atendidas han sido 57.

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Saila eta Programa / Departamento y Programa

09	**ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUS.** ***EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD***
232113	**EMAKUMEA ETA FAMILIAKO ESKU-HARTZEA** ***MUJER E INTERVENCIÓN FAMILIAR***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
1	**BALIABIDERIK EZ DUTEN EMAKUME ADINDUNEN GIZARTE-LARRIALDIKO EGOERAK ARINTZEA** ***PALIAR SITUACIONES DE EMERGENCIA SOCIAL DE MUJERES DE AVANZADA EDAD SIN RECURSOS***			
1	BANAKAKO LAGUNTZAK EMATEA ZENTROETAN SARTZEKO *CONCEDER AYUDAS INDIVIDUALES PARA INGRESOS EN CENTROS*			
1	Artatutako emakume onuradunen kopurua *Número de beneficiarias atendidas*	3	3	2
2	**INDARKERIA MATXISTAREN ETA SEXU-INDARKERIAREN KASUEN ONDORIOZKO GATAZKAK PREBENITZEA ETA ARINTZEA** ***PREVENIR Y PALIAR LA CONFLICTIVIDAD DERIVADA DE LOS SUPUESTOS DE VIOLENCIA MACHISTA Y SEXUAL***			
1	ARRETA JURIDIKOKO ZERBITZUA EMATEA *PRESTACIÓN DE UN SERVICIO DE ATENCIÓN JURÍDICA*			
1	Artatutako kontsulten kopurua *Número de consultas atendidas*	400	400	159
2	Artatutako emakumeen kontsulten kopurua *Número de consultas de mujeres atendidas*	400	400	156
3	Artatutako 18-29 urte arteko pertsonen kontsulten kopurua *Número de consultas de personas de 18-29 atendidas*	30	30	13
4	Artatutako 18-29 urte arteko gizonen kontsulten kopurua *Número de consultas de varones de 18-29 atendidos*	15	15	
5	Indarkeria matxista dela-eta artatutako kontsulten kopurua *Número de consultas atendidas por violencia machista*	300	300	51
6	Sexu-indarkeria dela-eta artatutako kontsulten kopurua *Número de consultas atendidas por violencia sexual*	100	100	16
3	**INDARKERIA MATXISTA ETA/EDO SEXU-INDARKERIA DAGOENEAN, INDARKERIA MATXISTAREN ONDORIOAK PREBENITZEA ETA ARINTZEA** ***PREVENIR Y PALIAR LAS CONSECUENCIAS DE LA VIOLENCIA MACHISTA EN SUPUESTOS DE VIOLENCIA MACHISTA Y/0 SEXUAL***			
1	LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA EMATEA *PRESTAR ASISTENCIA PSICOLÓGICA*			
1	Artatutako pertsonen kopurua *Número de personas atendidas*	2.000	2.000	1.375
2	Artatutako pertsona berrien kopurua *Número de personas atendidas nuevas*	1.000	1.000	583
3	Artatu diren indarkeria matxistaren emakume biktimen kopurua *Número de mujeres víctimas de violencia machista atendidas*	600	600	972

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
4	Artatu diren indarkeria matxistaren gizon biktimen kopurua *Número de varones víctimas de violencia machista atendidos*	50	50	13
5	Artatu diren indarkeria matxistaren biktima adingabeen kopurua *Número de menores víctimas de violencia machista atendidas/os*	250	250	129
6	Artatu diren sexu-indarkeriaren emakume biktimen kopurua *Número de mujeres víctimas de violencia sexual atendidas*	60	60	132
7	Artatu diren sexu-indarkeriaren gizon biktimen kopurua *Número de varones víctimas de violencia sexual atendidos*			7
8	Artatu diren sexu-indarkeriaren biktima adingabeen kopurua *Número de menores víctimas de violencia sexual atendidas/os*	100	100	26
9	Artatu diren emakume erasotzaileen kopurua *Número de mujeres agresoras atendidas*	5	5	1
10	Artatu diren gizon erasotzaileen kopurua *Número de varones agresores atendidos*	15	15	35
11	Artatu diren adingabe erasotzaileen kopurua *Número de menores agresoras/es atendidas/os*	10	10	
12	Artatu diren 18-29 urte arteko emakumeen kopurua *Número de mujeres de 18-29 atendidas*	30	30	227
13	Artatu diren 18-29 urte arteko gizonen kopurua *Número de varones de 18-29 atendidos*	10	10	15
14	Artatu diren 15-17 urte arteko neskatoen kopurua *Número de menores chicas de 15-17 atendidas*	20	20	50
15	Artatu diren 15-17 urte arteko gizonen kopurua *Número de menores chicos de 15-17 atendidos*	5	5	17
4	**INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK ERABAT GIZARTERATZEA SUSTATZEA** ***FAVORECER PLENA INTEGRACION MUJERES VICTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA DENTRO DE LA SOCIEDAD***			
1	INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK ETA HAIEN SEME-ALABAK EGOITZAN HARTZEA *ACOGIMIENTO RESIDENCIAL DE MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA, ASÍ COMO A SUS HIJAS/OS*			
1	Larrialdiko zerbitzuan artatu diren emakumeen kopurua *Número de mujeres atendidas en servicio de urgencias*	300	300	106
2	Larrialdiko zerbitzuan artatu diren emakume berrien kopurua *Número de mujeres nuevas atendidas en servicio de urgencias*	250	250	80
3	Larrialdiko zerbitzuan artatu diren 18-29 urte arteko emakumeen kopurua *Número de mujeres de 18-29 atendidas en servicio de urgencias*	90	90	48
4	Larrialdiko zerbitzuan artatu diren seme-alaben kopurua *Número de hijos/as atendidos/as en servicio de urgencias*	20	20	80
5	Larrialdiko zerbitzuan artatu diren seme-alaba adingabeen kopurua *Número de hijos/as menores atendidos/as en servicio de urgencias*	120	120	79
6	Larrialdiko zerbitzuan artatu diren seme-alaba berrien kopurua *Número de hijos/as nuevos/as atendidos/as en servicio de urgencias*	80	80	62
7	Larrialdiko zerbitzuan artatu diren seme-alaba adingabe berrien kopurua *Número de hijos/as menores nuevos/as atendidos/as en servicio de urgencias*	70	70	61
8	Larrialdiko zerbitzuan artatu diren 15-17 urte arteko alaben kopurua *Número de hijas menores de 15-17 años atendidas en servicio de urgencias*	60	60	8

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
9	Larrialdiko zerbitzuan artatu diren 15-17 urte arteko semeen kopurua *Número de hijos menores de 15-17 años atendidos en servicio de urgencias*	20	20	2
10	Egonaldi ertain/luzeko harrera-zentroetan artatu diren emakumeen kopurua *Número de mujeres atendidas en centros de acogida de media/larga estancia*	40	40	14
11	Egonaldi ertain/luzeko harrera-zentroetan artatu diren emakume berrien kopurua *Número de mujeres nuevas atendidas en centros de acogida de media/larga estancia*	20	20	4
12	Egonaldi ertain/luzeko harrera-zentroetan artatu diren 18-29 urte arteko emakumeen kopurua *Número de mujeres de 18-29 años atendidas en centros de acogida de media/larga estancia*	10	10	6
13	Egonaldi ertain/luzeko harrera-zentroetan artatu diren seme-alaben kopurua *Número de hijos/as atendidos/as en centros de acogida de media/larga estancia*	25	25	16
14	Egonaldi ertain/luzeko harrera-zentroetan artatu diren seme-alaba adingabeen kopurua *Número de hijos/as menores atendidos/as en centros de acogida de media/larga estancia*	23	23	15
15	Egonaldi ertain/luzeko harrera-zentroetan artatu diren seme-alaba berrien kopurua *Número de hijos/as nuevos/as atendidos/as en centros de acogida de media/larga estancia*	15	15	7
16	Egonaldi ertain/luzeko harrera-zentroetan artatu diren seme-alaba adingabe berrien kopurua *Número de hijos/as menores nuevos/as atendidos/as de centros de acogida en media/larga estancia*	13	13	7
17	Artatu diren 15-17 urte arteko alaben kopurua *Número de hijas menores de 15-17 años atendidas*	5	5	
18	Artatu diren 15-17 urte arteko semeen kopurua *Número de hijos menores de 15-17 años atendidos*	5	5	1
19	Hitzarmenen kopurua *Número de convenios*	3	3	2
5	**FAMILIA UGARIEN KUDEAKETA** ***GESTION DE FAMILIAS NUMEROSAS***			
1	FAMILIA UGARIEN TITULUEI BURUZKO TXOSTENA EGITEA, TITULUAK IZAPIDETZEA, KUDEATZEA ETA EGITEA *INFORMAR, TRAMITAR, GESTIONAR Y REALIZAR TÍTULOS DE FAMILIAS NÚMEROSAS*			
1	Izapidetu diren titulu berrien kopurua *Número de títulos tramitados nuevos*	200	200	388
2	Kategoria orokorreko titulu berrien kopurua *Número de títulos nuevos de categoría general*	200	200	373
3	Kategoria bereziko titulu berrien kopurua *Número de títulos nuevos de categoría especial*	6	6	15
4	Berritu diren tituluen kopurua *Número de títulos renovados*	1.100	1.100	2.206
5	Kategoria orokorrean berritu diren tituluen kopurua *Número de títulos renovados de categoría general*	1.000	1.000	1.855
6	Kategoria berezian berritu diren tituluen kopurua *Número de títulos renovados de categoría especial*	160	160	351
7	Indarrean dauden tituluen kopurua *Número de títulos en vigor*	14.200	14.200	14.496
8	Kategoria orokorrean indarrean dauden tituluen kopurua *Número de títulos en vigor de categoría general*	13.000	13.000	13.310
9	Kategoria berezian indarrean dauden tituluen kopurua *Número de títulos en vigor de categoría especial*	1.200	1.200	1.186

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
6	**INDARKERIA MATXISTA PREBENITZEA ETA DESAGERRARAZTEA, ETA ARRETA BEREZIA JARTZEA BIKTIMA ADINGABEENTZAKO ETA AMENTZAKO LAGUNTZA INTEGRALEAN** ***PREVENIR Y ERRADICAR LA VIOLENCIA MACHISTA PRESTANDO ASISTENCIA INTEGRAL A MENORES VÍCTIMAS Y A SUS MADRES***			
1	BIKTIMA ADINGABEEI ETA HAIEN AMEI LAGUNTZA TERAPEUTIKOA ETA/EDO HEZKUNTZAKOA EMATEA *PROPORCIONAR APOYO TERAPÉUTICO Y/O EDUCATIVO A LAS Y LOS MENORES VÍCTIMAS Y A SUS MADRES*			
1	Artatu diren adingabeen kasuen kopurua, guztira *Número total de casos de menores atendidos/as*	100	100	48
2	Artatu diren neskatoen kasuen kopurua *Número de casos de niñas atendidas*	40	40	25
3	Artatu diren 15-17 urte arteko neskatoen kasuen kopurua *Número de casos de niñas atendidas de entre 15-17 años*	5	5	3
4	Artatu diren mutikoen kasuen kopurua *Número de casos de niños atendidos*	50	50	23
5	Artatu diren 15-17 urte arteko mutikoen kasuen kopurua *Número de casos de niños atendidos de entre 15-17 años*	5	5	3
6	Adingabeen kasu berrien kopurua *Número de casos nuevos de menores*	40	40	6
7	Artatu diren familien kopurua *Número de familias atendidas*	45	45	32
8	Artatu diren familia berrien kopurua *Número de familias nuevas atendidas*	25	25	2
7	**INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEK BIZIMODU INDEPENDENTEA ETA ERASORIK GABEKOA LORTZEA SUSTATZEA** ***PROMOVER QUE LAS MUJERES VÍCTIMAS DE VIOLENCIA MACHISTA ALCANCEN UNA VIDA INDEPENDIENTE, LIBRE DE AGRESIONES***			
1	ESKU-HARTZE SOZIOEDUKATIBORAKO EDO PSIKOSOZIALERAKO PROGRAMA BAT ESKAINTZEA *PRESTACIÓN DE UN PROGRAMA DE INTERVENCIÓN SOCIOEDUCATIVA Y/O PSICOSOCIAL*			
1	Artatu diren emakumeen kopurua *Número de mujeres atendidas*	120	120	165
2	Artatu diren emakume berrien kopurua *Número de mujeres nuevas atendidas*	20	20	48
3	Artatu diren 18-29 urte arteko emakumeen kopurua *Número de mujeres de 18-29 años atendidas*	20	20	47
4	Artatu diren seme-alaben kopurua *Número de hijos/as atendidos/as*	100	100	111
5	Artatu diren seme-alaba adingabeen kopurua *Número de hijos/as menores atendidos/as*	100	100	111
6	Artatu diren seme-alaba berrien kopurua *Número de hijos/as nuevos/as atendidos/as*	30	30	38
7	Artatu diren seme-alaba adingabe berrien kopurua *Número de hijos/as menores nuevos/as atendidos/as*	10	10	38
8	Artatu diren 15-17 urte arteko alaba adingabeen kopurua *Número de hijas menores de 15-17 años atendidas*	5	5	4
9	Artatu diren 15-17 urte arteko seme adingabeen kopurua *Número de hijos menores de 15-17 años atendidos*	5	5	5

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
10	Ostatua izateko laguntzarekin artatu diren emakumeen kopurua *Número de mujeres atendidas con apoyo alojativo*	35	35	81
11	Ostatua izateko laguntzarekin artatu diren emakume berrien kopurua *Número de mujeres nuevas atendidas con apoyo alojativo*	15	15	33
12	Ostatua izateko laguntzarekin artatu diren seme-alaben kopurua *Número de hijos/as atendidos/as con apoyo alojativo*	10	10	46
13	Ostatua izateko laguntzarekin artatu diren seme-alaba adingabeen kopurua *Número de hijos/as menores atendidos/as con apoyo alojativo*	10	10	46
14	Ostatua izateko laguntzarekin artatu diren seme-alaba berrien kopurua *Número de hijos/as nuevos/as atendidos/as con apoyo alojativo*	8	8	22
15	Ostatua izateko laguntzarekin artatu diren seme-alaba adingabe berrien kopurua *Número de hijos/as menores nuevos/as atendidos/as con apoyo alojativo*	8	8	22
16	Egin diren esku-hartze hezitzaile eta psikosozialen kopurua *Número de intervenciones educativas y psicosociales realizadas*	10.000	10.000	5.000
17	Hitzarmenen kopurua *Número de convenios*	4	4	7
8	**FAMILIA-EREMUAN GATAZKEN KONPONBIDE BORTITZA ALDATZEA, ETA, HORRETARAKO, HARREMANETARAKO PAUTEN ALDAKETA SUSTATZEA** ***MODIFICAR LA RESOLUCIÓN VIOLENTA DE CONFLICTOS EN EL ÁMBITO FAMILIAR, PROMOVIENDO LA MODIFICACIÓN DE PAUTAS RELACIONALES EN LOS***			
1	ESKU-HARTZE PSIKOSOZIAL ESPEZIALIZATUA ESKAINTZEA FAMILIEI ETA NERABE ERASOTZAILEEI *PROPORCIONAR INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL ESPECIALIZADA A LAS FAMILIAS Y A LAS ADOLESCENTES AGRESORES/AS*			
1	Artatu diren familien kopurua *Número de familias atendidas*	150	150	83
2	Artatu diren familien kasu berrien kopurua *Número de casos nuevos familias*	60	60	32
3	Artatu diren nerabe eta gazteen kopurua *Número total de adolescentes y jóvenes atendidos/as*	200	200	83
4	Artatu diren neska nerabe eta gazteen kopurua *Número de adolescentes y jóvenes mujeres atendidas*	50	50	29
5	Artatu diren mutil nerabe eta gazteen kopurua *Número de adolescentes y jóvenes varones atendidos*	100	100	54
6	Artatu diren 15 eta 21 urte arteko nerabe eta gazteen kopurua, guztira *Número total de adolescentes y jóvenes de 15 a 21 años atendidos/as*	100	100	48
7	Artatu diren nerabe ta gazte berrien kopurua *Número de adolescentes y jóvenes nuevos/as atendidos/as*	120	120	32
9	**GIZARTEAREN PARTE-HARTZEA SUSTATZEA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA DESAGERRARAZTEKO** ***PROMOVER LA PARTTICIPACIÓN SOCIAL EN LA ERRADICACIÓN DE LA VIOLENCIA MACHISTA CONTRA LAS MUJERES***			
1	GIZARTE-LAGUNTZAKO ERAGILEEN SARE BAT MANTENTZEA BLH-N *MANTENIMIENTO DE UNA RED DE AGENTES DE APOYO SOCIAL EN EL THB*			
1	Elkarteekin sinatu diren diruz laguntzeko moduko hitzarmenen kopurua *Número de convenios Subvencionales formalizados con Asociaciones*	45	45	17
2	Gizarte-laguntzako eragile gisa prestatutako pertsonen kopurua *Número de personas formadas como agentes de apoyo social*	40	40	27

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
3	Laguntza eta babesa jaso duten emakume biktimen kopurua *Número de mujeres víctimas que han recibido apoyo y acompañamiento*	120	120	31
4	Informazio- eta sentsibilizazio-hitzaldien kopurua *Número de charlas informativas y de sensibilización*	50	50	38
10	**FAMILIEN KALTEBERATASUN HANDIKO EGOERAK PREBENITZEA** ***PREVENIR SITUACIONES DE ALTA VULNERABILIDAD DE LAS FAMILIAS***			
1	FAMILIEKIN ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALA, BANAKAKO, TALDEKOA EGITEKO PROIEKTUA GARATZEA *DESARROLLAR UN PROYECTO INTERVENCIÓN PSICOSOCIAL, INDIVIDUAL, GRUPAL CON LAS FAMILIAS*			
1	Esku-hartze sozioedukatiboen eta psikosozialen kopurua *Nº intervenciones socioeducativas y psicosociales*	800	800	400
2	Artatu diren familien kopurua *Nº de familias atendidas*	30	30	57
11	**ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA SUSTATZEA BLH-N INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEKO** ***PROMOVER LA COOPERACIÓN INSTITUCIONAL PARA PALIAR LA VIOLENCIA MACHISTA EN EL THB***			
1	BLH-KO HARRERA-BALIABIDEEN LURRALDEKO SAREA *RED TERRITORIAL DE RECURSOS DE ACOGIDA EN EL THB*			
1	Sarean sartuta dauden udalen kop. *Nº de Ayuntamientos adheridos a la Red*	15	15	8
2	Sareari atxikitako etxebizitzen kop. *Nº de viviendas adscritas a la Red*	20	20	29

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena Aldia: Urtarrila - Ekaina
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto *Periodo:* *Enero - Junio*

Saila		**ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA**
Departamento	**09**	**EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD**
Programa		**Inklusio soziala**
Programa	**231.110**	***Inclusión Social***

"Gizarte-inklusioa" programaren egikaritze-maila honako hau da 2024ko ekainaren 30ean:

1. helburua, "Inklusio-prozesuetarako laguntza", ekintza honen bidez gauzatzen da:

(I) Gizartean baztertuta dauden pertsonei laguntza integrala ematea, egoitzan edo egoitzatik kanpo. Guztira 570 pertsonari eman zaie arreta; horietatik 200 emakumeak ziren, 33 pertsona 18-29 urte bitarteko gazteak, eta 13 emakume 18-29 urte bitartekoak.

2. helburua, "Gizarte-inklusiorako beste jarduketa batzuk", ekintza hauen bidez gauzatzen da:

(I) Intentsitate txikiko gizarte-inklusiorako beste jarduketa batzuk eskaintzea. Guztira 350 pertsonari eman zaie arreta, eta haietatik 59 emakumeak ziren, eta 18 eta 29 urte bitarteko 28 gazte.

(II) Laguntza terapeutiko programa esperimentaletan gizarte-inklusiorako jarduketa berritzaileak eskaintzea . Guztira 68 pertsonari eman zaie arreta; haietatik 35 emakumeak ziren, eta 19 eta 29 urte bitarteko 53 gazte.

(III) Presoei eta preso ohiei gizarte- eta lan-arloko arreta ematea. Guztira 68 pertsonari eman zaie arreta; haietatik 4 emakumeak ziren, eta 18 eta 29 urte bitarteko 7 gazte.

El nivel de ejecución del Programa "Inclusión social", a fecha treinta de junio de 2024, es como se indica a continuación:

El objetivo 1 "Atención a procesos de inclusión", se desarrolla a través de la siguiente acción:

(I) Prestar atención integral, residencial y/o no residencial a personas en situación de exclusión social. Se ha atendido un total de 570 personas, de las cuales 200 eran mujeres, 33 jóvenes de 18-29 años y 13 mujeres jóvenes de 18-29 años.

El objetivo 2 "Otras actuaciones para la inclusión social", se desarrolla a través de las siguientes acciones:

(I) Prestar otras actuaciones para la inclusión social de baja intensidad. Se ha atendido un total de 350 personas, de las cuales 59 eran mujeres y 28 jóvenes de entre 18 y 29 años.

(II) Prestar actuaciones innovadoras para la inclusión social en programas experimentales de apoyo terapéutico. Se ha atendido un total de 68 personas, de las cuales 35 eran mujeres y 53 jóvenes de entre 19 y 29 años.

(III) Prestar atención sociolaboral a personas reclusas y exreclusas. Se ha atendido un total de 68 personas, de las cuales 4 eran mujeres y 7 jóvenes de entre 18 y 29 años.

3. helburua, “Gazteentzako (18-23 urte) laguntza”, ekintza honen bidez garatzen da: gazteei (18-23) arreta integrala ematea, egoitzetan edo hortik kanpo, emantzipaziorako edo bazterkeria prebenitzeko prozesuetan. Ekintza hori erreferentziazko pertsona heldurik ez duten gazteei zuzenduta dago, zeinak, kasu batzuetan, ezin baitira gizartean moldatu. Helburu hori betetzeko, 490 pertsonari eman zaie arreta, eta haietatik 104 emakumeak ziren.

El objetivo 3 “Atención a personas jóvenes (18-23 años)”, se desarrolla a través de la acción: prestar atención integral, residencial y/o no residencial, a personas jóvenes (18-23) en procesos de emancipación o prevención de la exclusión, dirigida a personas jóvenes carentes de figuras adultas de referencia, en algunos casos con conductas de desadaptación social. El mismo se ha cumplido con 490 personas atendidas, de las cuales 104 eran mujeres.

4. helburua, “Buruko gaixotasunak dituztenentzako laguntza”, ekintza honen bidez garatzen da: gizartean baztertuta dauden eta gaixotasun mental larria eta kronikoa duten pertsonei laguntza integrala ematea, egoitzetan edo hortik kanpo. Guztira 130 pertsonari eman zaie arreta; horietatik 35 emakumeak ziren, 7 pertsona 18 eta 29 urte bitarteko gazteak, eta 2 emakume 18 eta 29 urte bitartekoak.

El Objetivo 4 “Atención enfermedad mental”, se desarrolla a través de la acción: prestar atención integral, residencial y/o no residencial, a personas en situación de exclusión social y con enfermedad mental grave y crónica. Se ha atendido un total 130 personas; de las cuales 35 eran mujeres, 7 jóvenes de 18 a 29 años y 2 mujeres jóvenes de 18 a 29 años.

5. helburuak, “Inklusioa sustatzeko prozesuak ekonomikoki laguntzea”, baliabide ekonomikorik eza osatu nahi du, zeinak berekin ekar baitezake banakako egoerek pixkanaka okerrera egitea, eta gizarte-bazterkeriako egoerak eragin edo larriagotu baititzake. Ondorioz, ezinbestekotzat jotzen da egoera horiek arintzen lagunduko duten laguntza ekonomikoak ematea, eta honako hauek kudeatuz garatuko da:

El Objetivo 5 “Impulsar económicamente procesos de inclusión” pretende suplir la carencia de recursos económicos, que puede acarrear un progresivo deterioro de situaciones individuales y que puede causar o agravar situaciones de exclusión social. En consecuencia, se considera de fundamental importancia la concesión de prestaciones económicas que ayuden a paliar estas situaciones y que se desarrollará mediante la gestión de:

(I) Gizarteko-inklusioko zentroetan sartzeko laguntza ekonomikoak ematea: 6 laguntza eman dira, eta 6 laguntza horiek emakumeei eman zaizkie.

(I) Ayudas económicas para ingresos en centros de Inclusión Social: el número de pagos de ayudas efectuados ha sido de 6, de los cuales 6 se han efectuado a mujeres.

(II) Gizarte-inklusiorako laguntza berezia: guztira 9 pertsonari eman zaizkie gizarte-inklusiorako laguntza bereziak, eta 18 eta 29 urte bitarteko gazteak dira onuradun guztiak (laguntza-mota horren izaeragatik); horietatik 0 emakumeak dira.

(II) Ayuda Especial para la Inclusión Social: con un total de 9 titulares de ayudas especiales para la inclusión social, todos ellos, (por el carácter de este tipo de ayudas) jóvenes de entre 18 y 29 años de edad, de los cuales 0 han sido mujeres.

(III) Gizarte Ongizateko Funtseko Pentsioak ematea: 270 pertsonak jaso dituzte pentsio horiek; haietatik 167 ezintasunen ondorioz eman dira, eta 103 zahartasuna dela eta. Ezintasunen ondoriozko laguntza jaso duten 167 pertsonetatik, 23 pertsona 18-29 urte bitartekoak dira, eta haietatik 14 emakumeak dira.

(IV) Inklusio-prozesu espezializatuei lotutako prestazio ekonomikoa (IPELP), maiatzaren 2ko 58/2023 Foru Dekretuaren bidez onetsia.

6. helburua, "Ebaluazioa, diagnostikoa eta orientazioa eta erabiltzaileen beharrizanen zehaztapena": 210 kasu baloratu eta diagnostikatu dira; horietatik 40 emakumeei buruzkoak izan dira, eta 85, 18-29 urte bitarteko gazteei buruzkoak.

Azkenik, 7. helburuari dagokionez, hau da, "Emakumeak hitzartutako zerbitzuetan sartzea sustatzen duten neurriak ezartzea", 30 emakume lehenetsi dira.

(III) Concesión de Pensiones del Fondo de Bienestar Social: con 270 personas perceptoras, de las que 167 serán por incapacidad y 103 por ancianidad. De las 167 personas perceptoras por incapacidad, 23 se encuentran entre 18 y 29 años, de las cuales 14 son mujeres.

(IV) Prestación económica Vinculada a Procesos Especializados de Inclusión (PVPEI), aprobada por Decreto Foral 58/2023, de 2 de mayo.

El objetivo 6 "Valoración, diagnóstico y orientación y determinación de las necesidades de las personas usuarias": se han valorado y diagnosticado 210 casos, de los cuales 40 han sido relativos a mujeres y 85 a jóvenes de entre 18 y 29 años.

Por último, en cuanto al objetivo 7 "Establecimiento de medidas que fomenten el acceso de mujeres a servicios convenidos", ha habido un total de 30 mujeres priorizadas.

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Saila eta Programa / Departamento y Programa

09	**ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA SUS.** ***EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD***
231110	**INKLUSIO SOZIALA** ***INCLUSION SOCIAL***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	**INKLUSIO-PROZESUETARAKO LAGUNTZA** ***ATENCION A PROCESOS INCLUSION***			
1	GIZARTE-BAZTERKETAKO EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA INTEGRALA EMATEA, EGOITZAKOA ETA/EDO EGOITZAKOA EZ DENA *PRESTAR A ATENCION INTEGRAL, RESIDENCIAL Y/O NO RESIDENCIAL, A PERSONAS EN SITUACION DE EXCLUSION SOCIAL*			
1	Guztira laguntza jaso duten pertsonen kopurua *Número total de personas atendidas*	800	800	570
2	Laguntza jaso duten emakumeen kopurua *Número de mujeres atendidas*	220	220	200
3	Laguntza jaso duten 18-20 urte bitartekoen kasuen kopurua *Número de casos de personas de 18-29 años atendidas*	54	54	33
4	Laguntza jaso duten 18-20 urte bitarteko emakumeen kasuen kopurua *Número de casos de mujeres de 18-29 años atendidas*	16	16	13
2	**GIZARTE INKLUSIORAKO BESTE JARDUKETA BATZK** ***OTRAS ACTUACIONES PARA LA INCLUSION SOCIAL***			
1	INTENTSITATE TXIKIKO GIZARTE-INKLUSIORAKO BESTE JARDUKETA BATZUK ESKAINTZEA *PRESTAR OTRAS ACTUACIONES PARA LA INCLUSION SOCIAL DE BAJA INTENSIDAD*			
1	Guztira laguntza jaso duten pertsonen kopurua *Número total de personas atendidas.*	300	300	350
2	Laguntza jaso duten emakumeen kopurua *Número de mujeres atendidas*	60	60	59
3	Zerbitzua eman zaien 18-29 urte bitarteko pertsonen kopurua *Número de personas de 18-29 años atendidas*	20	20	28
2	LAGUNTZA TERAPEUTIKOKO PROGRAMA ESPERIMENTALETAN GIZARTERATZEKO JARDUERA BERRITZAILEAK ESKAINTZEA *PRESTAR ACTUACIONES INNOVADORAS PARA LA INCLUSIÓN SOCIAL EN PROGRAMAS EXPERIMENTALES DE APOYO TERAPÉUTICO*			
1	Arreta jaso duten pertsonen kopurua *Número total de personas atendidas*	50	50	68
3	Arreta jaso duten 18-29 urte bitarteko pertsonen kopurua *Número de personas de 18-29 años atendidas*	25	25	53
3	**GAZTEENTZAKO (18-23 URTE) LAGUNTZA** ***ATENCION A PERSONAS JOVENES (18-23 AÑOS)***			
1	GAZTEEI (18-23 URTE) LAGUNTZA INTEGRALA EMATEA, EGOITZETAN EDO HORTIK KANPO, EMANTZIPAZIORAKO ETA BAZTERKERIA PREBENITZEKO *PRESTAR ATENCION INTEGRAL, RESIDENCIAL Y/O NO RESIDENCIAL, A JOVENES (18-23 AÑOS) EN EMANCIPACION O PREVENCION DE EXCLUSION*			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
1	Guztira laguntza jaso duten pertsonen kopurua *Nº total de personas atendidas*	600	600	490
2	Laguntza jaso duten emakumeen kopurua *Nº de mujeres atendidas*	114	114	104
4	**BURUKO GAIXOTASUNAK DITUZTENENTZAKO LAGUNTZA** ***ATENCION ENFERMEDAD MENTAL***			
1	GIZARTEAN BAZTERTUTA DAUDEN ETA GAIXOTASUN MENTAL LARRIA ETA KRONIKOA DUTEN PERTSONEI LAGUNTZA INTEGRALA EMATEA, EGOITZETAN EDO HORTIK KANPO *ATENCION INTEGRAL, RESIDENCIAL Y/O NO RESIDENCIAL, A PERSONAS EN EXCLUSION SOCIAL Y CON ENFERMEDAD MENTAL GRAVE Y CRONICA*			
1	Zerbitzua eman zaien pertsonen kopurua *Nº total de personas atendidas*	160	160	130
2	Zerbitzua eman zaien emakumeen kopurua *Nº de mujeres atendidas*	50	50	35
3	Zerbitzua eman zaien 18-29 urte bitarteko pertsonen kopurua *Nº de casos de personas de 18-29 años atendidas*	10	10	7
4	Zerbitzua eman zaien 18-29 urte bitarteko emakumeen kopurua *Nº de casos de mujeres de 18-29 años atendidas*	5	5	2
5	**INKLUSIOA SUSTATZEKO PROZESUAK EKONOMIKOKI LAGUNTZEA** ***IMPULSAR ECONOMICAMENTE PROCESOS DE INCLUSION***			
1	CIS ZENTROETAN SARTZEKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK EMATEA *CONCESION DE AYUDAS ECONOMICAS PARA INGRESOS EN CIS*			
1	Ordaindutako laguntza-kopurua *Número de pagos de ayudas efectuados*	12	12	6
2	Emakumeei ordaindutako laguntza-kopurua *Número de pagos de ayudas efectuados a mujeres*	12	12	6
2	GIZARTE INKLUSIORAKO LAGUNTZA BEREZIAK EMATEA *CONCESION DE AYUDAS ESPECIALES PARA LA INCLUSION SOCIAL*			
1	Berrikuspen datan (06/30 eta 12/31) dauden titularren kopurua *Nº de titulares totales en la fecha de revisión (30-06 y 31-12)*	60	60	9
2	Emakume titularren kopurua guztira, berrikuspen-datan (06-30a eta 12-31) *Nº de titulares mujeres en la fecha de revisión (30-06 y 31-12)*	8	8	
3	Berrikuspen-datan (06/30 eta 12/31) dauden 18-29 urte bitarteko titularren kopurua *Nº de titulares entre 18 y 29 años en la fecha de revisión (30-06 y 31-12)*	60	60	9
4	Genero-politikaren arloko gastua *Gasto en política de género*			
3	GIZARTE ONGIZATEKO FUNTSEKO PENTSIOAK EMATEA *CONCESION DE PENSIONES DEL FONDO DE BIENESTAR SOCIAL*			
1	Seihilekoan zehar, ezintasunaren ondorioz onuradun izan diren pertsonen kopurua *Nº de personas beneficiarias por incapacidad durante el semestre*	175	175	167
2	Seihilekoan zehar, zahartasuna dela-eta onuradun izan diren pertsonen kopurua *Nº de personas beneficiarias por ancianidad durante el semestre*	95	95	103
3	Titular-kopurua, guztira, berrikuspen-datan (06-30a eta 12-31) *Nº titulares totales en la fecha de revisión (30-06 y 31-12)*	270	270	270
4	Emakume titularren kopurua guztira, berrikuspen-datan (06-30a eta 12-31) *Nº titulares mujeres en la fecha de revisión (30-06 y 31-12)*	126	126	136

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	Egit / *Realiz.*
5	18 eta 29 urte bitarteko titularren kopurua, guztira, berrikuspen datan (06-30a eta 12-31) *Nº titulares entre 18 y 29 años en la fecha de revisión (30-06 y 31-12)*	23	23	23
6	18 eta 29 urte bitarteko emakume titularren kopurua, guztira, berrikuspen datan (06-30a eta 12-31) *Nº titulares mujeres entre 18 y 29 años en la fecha de revisión (30-06 y 31-12)*	9	9	14
4	INKLUSIO-PROZESUEI LOTUTAKO PRESTAZIOAK EMATEA *CONCESIÓN DE PRESTACIONES VINCULADAS A PROCESOS DE INCLUSIÓN*			
1	Berrikuspen datan (06/30 eta 12/31) dauden titularren kopurua *Nº de titulares totales en la fecha de revisión (30-06 y 31-12)*	200	200	111
2	Berrikuspen datan (06/30 eta 12/31) dauden emakume titularren kopurua *Nº de titulares mujeres en la fecha de revisión (30-06 y 31-12)*	30	30	26
3	Berrikuspen-datan (06/30 eta 12/31) dauden 18-29 urte bitarteko titularren kopurua *Nº de titulares entre 18 y 29 años en la fecha de revisión (30-06 y 31-12)*	150	150	86
4	Genero-politikan egindako gastua *Gasto en política de género*			
6	**EBALUAZIOA, DIAGNOSTIKOA ETA ORIENTAZIOA ETA ERABILTZAILEEN BEHARRIZANEN ZEHAZTAPENA** ***VALORACION, DIAGNOSTICO Y ORIENTACION Y DETERMINACION DE NECESIDADES DE LAS PERSONAS USUARIAS***			
1	GIZARTE-BAZTERKETAKO EGOERAREN EBALUAZIOA ETA DIAGNOSTIKOA ETA BEHARRIZANEN ZEHAZTAPENA *VALORACION Y DIAGNOSTICO DE LA SITUACION DE EXCLUSION SOCIAL Y DETERMINACION DE NECESIDADES*			
1	Ebaluatu eta diagnostikatutako kasuen kopurua *Nº de casos valorados y diagnosticados*	400	400	210
2	Emakumeei buruzko kasuen kopurua *Nº de casos valorados relativos a mujeres*	88	88	40
3	Ebaluatutako 18-29 urte bitarteko pertsonen kasuen kopurua *Nº de casos de personas de 18-29 años valoradas*	195	195	85
7	**EMAKUMEAK HITZARTUTAKO ZERBITZUETAN SARTZEA SUSTATZEN DUTEN NEURRIAK EZARTZEA** ***ESTABLECIMIENTO DE MEDIDAS QUE FOMENTEN EL ACCESO DE MUJERES A SERVICIOS CONVENIDOS***			
1	EMAKUMEAK HITZARTUTAKO ZERBITZUETAN SARTZEA SUSTATZEN DUTEN NEURRIAK EZARTZEA *ESTABLECIMIENTO DE MEDIDAS QUE FOMENTEN EL ACCESO DE MUJERES A SERVICIOS CONVENIDOS*			
1	Lehenetsi diren emakumeen kopurua *Nº de mujeres priorizadas*	88	88	30

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto

Aldia: Urtarrila - Ekaina
Periodo: *Enero - Junio*

Saila		**ENPLEGUA, GIZARTE KOHESIOA ETA BERDINTASUNA**
Departamento	**09**	**EMPLEO, COHESIÓN SOCIAL E IGUALDAD**
Programa		**Enplegua eta Ekintzailetza**
Programa	**241.116**	***Empleo y Emprendimiento***

Hauek dira programan 2024ko lehen seihilekoan egindako jarduerak:

1. Lan-munduan txertatzea

A. Bizkaiko Lurralde Historikoan enplegagarritasuna sustatzea, Lan Berri.

Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 21eko 207/2023 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko enplegagarritasuna sustatzeko Lan Berri Programaren 2024ko ekitaldiko dirulaguntzen oinarriak eta deialdia onetsi ziren.

Dekretu horren esparruan, hiru jarduera-ildo zehaztu ziren: Lehenengoan, laneratzen laguntzeko programa bat ezarri da, eta horren bidez orientazioa, prestakuntza eta bitartekaritza eman zaie langabe hauei: 45 urtetik gorakoak, langabezian luzaroan daudenak, desgaitasunen bat dutenak eta gizartean baztertuta egoteko arriskuan daudenak. Bigarren jarduketa-ildoan, laneratzen laguntzeko programa bat ezarri da, eta horren bidez orientazioa, prestakuntza eta bitartekaritza eman zaie gazteei. Eta, hirugarrenean, esku-hartze goiztiarreko programa bat ezarri da langabezian dauden 30 urtetik beherako gazte gaituentzat, beren lehen lan-esperientzia izan dezaten.

A.1 Langabeak lan-munduan txertatzeko laguntza-programa: 45 urtetik gorakoak, langabezian luzaroan daudenak, desgaitasunen bat dutenak eta gizartean baztertuta egoteko arriskuan daudenak.

Las actividades realizadas en el programa durante el primer semestre de 2024 son las siguientes:

1. Inserción laboral.

A. Promoción de la ocupabilidad en el Territorio Histórico de Bizkaia, Lan Berri.

Mediante Decreto Foral, 207/2023, de 21 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueban las bases y convocatoria de subvenciones para la promoción de la ocupabilidad en el Territorio Histórico de Bizkaia, Lan Berri, del ejercicio 2024.

En el marco del Decreto se establecen tres líneas de actuación: En la primera se establece un programa de acompañamiento a la inserción laboral con orientación, formación e intermediación dirigido a personas desempleadas: mayores de 45 años, de larga duración, personas con discapacidad, y en riesgo de exclusión; En la segunda línea de actuación se establece un programa de acompañamiento a la inserción laboral con orientación, formación e intermediación dirigido a personas jóvenes; Y en la tercera línea se establece un programa de intervención temprana con las personas jóvenes desempleadas de hasta 30 años con cualificación, a fin de puedan lograr una primera experiencia laboral.

A.1 Programa de acompañamiento a la inserción laboral de personas desempleadas: mayores de 45 años, de larga duración, con discapacidad, y en riesgo de exclusión.

Laguntzen helburua honako kolektibo hauetakoren bateko pertsonei lan-munduan sartzen laguntzea da: 45 urtetik gorako pertsonak; desgaitasunen bat dutenak; langabezian luzaroan daudenak; eta gizartean baztertuta egoteko arriskuan daudenak.

Honako hauek jaso ditzakete laguntzak: Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek; Bizkaiko Lurralde Historikoko udaletako enpleguko eta tokiko garapeneko zentroek edo haien mendeko edo haiei lotutako erakunde autonomo, enpresa publiko edo bestelako erakundeek; eta lan-munduan txertatzeko edota birkokatzeko prometan gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatu behar duten Bizkaiko irabazi-asmorik gabeko fundazio, elkarte eta bestelako erakundeek.

Diruz lagundu daitekeen ekintza lan-munduan txertatzeko ibilbide bat gauzatzean datza, eta honako fase hauek izango ditu:

- Lan-orientazioa: banakako orientazioa, gutxienez 5 ordu eta gehienez 15 ordu parte-hartzaile bakoitzeko.
- Lan-aktibazioa: banakako orientazioa, gutxienez 5 ordu eta gehienez 20 ordu ibilbide bakoitzeko.
- Lan-bitartekaritza: banakakoa, gehienez 10 ordu parte-hartzaile bakoitzeko.
- Prestakuntza: taldeka, 8-20 pertsona prestakuntza-ekintza bakoitzeko. Prestakuntza-ekintza hauek barne har ditzake:
    a) Oinarrizko gaitasun digitalak (aukerakoa): 20-60 ordu artean.
    b) Prestakuntza teknikoa: 60 eta 600 ordu bitartean.
    c) Berdintasuna: 7 ordu gutxienez.
- Laneratzea: laneratze-ibilbidean parte hartu duten pertsonen % 15 gutxienez.

Las ayudas tienen por objeto el fomento, acompañamiento a la inserción laboral en el mercado de trabajo de personas que pertenezcan a alguno de los siguientes colectivos: Personas mayores de 45 años; Personas con discapacidad; Personas desempleadas de larga duración; y Personas en riesgo de exclusión.

Pueden acceder a las ayudas: los ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia.; los centros de empleo y desarrollo local de carácter municipal del Territorio Histórico de Bizkaia, u organismos autónomos, empresas públicas u otras entidades de ellos dependientes o vinculados; y las fundaciones, asociaciones y otras entidades sin ánimo de lucro de Bizkaia que han de acreditar una experiencia mínima de tres años en programas de inserción y/o recolocación.

La acción subvencionable consiste en la ejecución de un itinerario de inserción que contenga las siguientes fases:

- Orientación laboral: de carácter individual, mínimo 5 horas y máximo 15 horas por persona participante.
- Activación laboral: de carácter grupal, mínimo 5 horas y máximo 20 horas por itinerario.
- Intermediación laboral: de carácter individual, máximo 10 horas por persona participante.
- Formación: de carácter grupal, de 8 a 20 personas por cada acción formativa. Podrá contener las siguientes acciones formativas:
    a) Competencias digitales básicas (opcional): de 20 a 60 horas.
    a) Formación técnica: de 60 a 600 horas.
    b) Igualdad: mínimo 7 horas.
- Inserción: mínimo 15% de las personas que han participado en el itinerario de inserción.

Dirulaguntzaren zenbatekoa:

Muga, entitate eskatzaileko: 120.000 euro

Laneratze-ibilbideko muga: 90.000 euro

Laugarren laneratzea 3.000 euro, laneratze gehigarri bakoitza 3.000 euro. Muga, laneratzeengatik: 9.000 euro.

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 29an hasi zen, eta 2024ko otsailaren 29an amaitu. Guztira 57 eskaera jaso ziren, 108 aneratze-ibilbideri zegozkienak. Eskabideak urteko hirugarren hiruhilekoan ebatziko dira.

A.2 Gazteak lan-munduan txertatzeko laguntza-programa.

Laguntza horien helburua da 30 urtera bitarteko gazteak lan-merkatuan txertatzea:

Honako hauek jaso ditzakete laguntzak: Bizkaiko Lurralde Historikoko udalek; Bizkaiko Lurralde Historikoko udaletako enpleguko eta tokiko garapeneko zentroek edo haien mendeko edo haiei lotutako erakunde autonomo, enpresa publiko edo bestelako erakundeek; eta lan-munduan txertatzeko edota birkokatzeko prometan gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatu behar duten Bizkaiko irabazi-asmorik gabeko fundazio, elkarte eta bestelako erakundeek.

Diruz lagundu daitekeen ekintza lan-munduan txertatzeko ibilbide bat gauzatzean datza, eta honako fase hauek izango ditu:

- Lan-orientazioa: banakako orientazioa, gutxienez 5 ordu eta gehienez 15 ordu parte-hartzaile bakoitzeko.
- Lan-aktibazioa: banakako orientazioa, gutxienez 5 ordu eta gehienez 20 ordu ibilbide bakoitzeko.

Cuantía de la subvención:

Límite por entidad solicitante: 120.000,00 euros

Límite por itinerario de inserción :90.000 euros

Cuarta inserción en mercado de trabajo 3.000 euros, inserción adicional 3.000. Límite por inserciones: 9.000 euros.

El plazo de presentación de solicitudes el día 29 de enero de 2024, y finalizó el día 29 de febrero de 2024, habiéndose recibido 57 solicitudes, correspondientes a 108 itinerarios de inserción. La resolución de las solicitudes se realizará durante el tercer trimestre del año.

A.2 Programa de acompañamiento a la inserción laboral de personas jóvenes.

Las ayudas tienen por objeto la inserción en mercado de trabajo de personas jóvenes hasta 30 años:

Pueden acceder a las ayudas: los ayuntamientos del Territorio Histórico de Bizkaia.; los centros de empleo y Desarrollo local de carácter municipal del Territorio Histórico de Bizkaia, u organismos autónomos, empresas públicas u otras entidades de ellos dependientes o vinculados; y las fundaciones, asociaciones y otras entidades sin ánimo de lucro de Bizkaia que han de acreditar una experiencia mínima de tres años en programas de inserción y/o recolocación.

La acción subvencionable consiste en la ejecución de un itinerario de inserción que contenga las siguientes fases:

- Orientación laboral: de carácter individual, mínimo 5 horas y máximo 15 horas por persona participante.
- Activación laboral: de carácter grupal, mínimo 5 horas y máximo 20 horas por itinerario.

- Lan-bitartekaritza: banakakoa, gehienez 10 ordu parte-hartzaile bakoitzeko.
- Prestakuntza: taldeka, 8-20 pertsona prestakuntza-ekintza bakoitzeko. Prestakuntza-ekintza hauek barne har ditzake:
  a) Oinarrizko gaitasun digitalak (aukerakoa): 20-60 ordu artean.
  b) Prestakuntza teknikoa: 60 eta 600 ordu bitartean.
  c) Berdintasuna: 7 ordu gutxienez.
- Laneratzea: laneratze-ibilbidean parte hartu duten pertsonen % 15 gutxienez.

Dirulaguntzaren zenbatekoa:

Muga, entitate eskatzaileko: 120.000 euro

Laneratze-ibilbideko muga: 90.000 euro

Laugarren laneratzea 3.000 euro, laneratze gehigarri bakoitza 3.000 euro. Muga, laneratzeengatik: 9.000 euro.

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 29an hasi zen, eta 2024ko otsailaren 29an amaitu.. Guztira 28 eskaera jaso ziren, 55 laneratze-ibilbideri zegozkienak. Eskabideak urteko hirugarren hiruhilekoan ebatziko dira.

A.3 3R Gaztea programa.

Laguntza horien helburua da 30 urtera bitarteko gazte trebatuak lan-merkatuan txertatzea, lan-munduan txertatzea xede duen orientazio-programa baten bidez.

Honako hauek jaso ditzakete laguntzak: Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateek eta Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako ikastetxeen elkarteek.

- Intermediación laboral: de carácter individual, máximo 10 horas por persona participante.
- Formación: de carácter grupal, de 8 a 20 personas por cada acción formativa. Podrá contener las siguientes acciones formativas:
  a) Competencias digitales básicas (opcional): de 20 a 60 horas.
  b) Formación técnica: de 60 a 600 horas.
  c) Igualdad: mínimo 7 horas.
- Inserción: mínimo 15% de las personas que han participado en el itinerario de inserción.

Cuantía de la subvención:

Límite por entidad solicitante: 120.000,00 euros

Límite por itinerario de inserción :90.000 euros

Cuarta inserción en mercado de trabajo 3.000 euros, inserción adicional 3.000. Límite por inserciones: 9.000 euros.

El plazo de presentación de solicitudes el día 29 de enero de 2024, y finalizó el día 29 de febrero de 2024, habiéndose recibido 28 solicitudes, correspondientes a 55 itinerarios de inserción. La resolución de las solicitudes se realizará durante el tercer trimestre del año.

A.3 Programa 3R Gaztea.

Las ayudas tienen por objeto Inserción en mercado de trabajo de personas jóvenes cualificadas hasta 30 años mediante un programa de orientación, colocación con objeto de lograr la inserción laboral.

Pueden acceder a las ayudas: las Universidades de la Comunidad Autónoma del País Vasco: y las Asociaciones de centros de Formación profesional del País Vasco.

Lan-munduan txertatzeko programa 90 gazteri zuzenduta egongo da gehienez, eta fase hauek izan ditzake:

- Banakako lan-orientazioa: 15 ordu parte-hartzaile bakoitzeko.
- Lan-aktibazioa: aukerakoa. Gehienez 20 ordu parte-hartzaile bakoitzeko. Talde-ekintzako kide-kopurua: 8 eta 20 pertsona bitartean, aurrez aurreko modalitatean egiten bada.
- Lan-bitartekaritza: 20 ordu parte-hartzaile bakoitzeko.
- Trebakuntza osagarria: aukerakoa.
    a) Berdintasunaren aldeko prestakuntza, 7 ordu gutxienez.
    b) Gai teknikoetako prestakuntza. Gehienez 60 ordu parte-hartzaile bakoitzeko.
    c) Prestakuntza-ekintzako kide-kopurua: 8 eta 20 pertsona bitartean.
- Laneratzea: programan parte hartu duten pertsonen % 20 gutxienez.

Dirulaguntzaren zenbatekoa. Muga, entitate eskatzaileko: 90.000 euro

Eskaerak aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 29an hasi zen, eta 2024ko otsailaren 29an amaitu. Guztira 4 eskaera jaso ziren. 3 erakunderi eman zaizkie laguntzak 7 programa gauzatzeko; programa horietan 190 gazte trebatuk parte hartzea aurreikusten da.

Jarduerak gauzatzeko epea 2025eko ekainaren 28an amaituko da. Eman diren laguntzen zenbatekoa 221.763,74 eurokoa izan da guztira.

El programa de inserción laboral estará dirigido a un máximo de 90 personas jóvenes y podrá contener las siguientes fases:

- Orientación laboral individual: máximo 15 horas por persona participante.
- Activación laboral: opcional. Máximo 20 horas por persona participante. Número de personas integrantes de la activación grupal: de 8 a 20 personas si se realiza de forma presencial.
- Intermediación laboral: máximo 20 horas por persona participante.
- Formación complementaria: opcional.
    a) Formación en igualdad con un mínimo de 7 horas.
    b) Formación en materias técnicas. Máximo 60 horas por persona participante.
    c) Número de personas integrantes de la acción formativa: de 8 a 20 personas.
- Inserción: mínimo 20% de las personas que han participado en el programa.

Cuantía de la subvención. Límite por entidad solicitante: 90.000,00 euros.

El plazo de presentación de solicitudes el día 29 de enero de 2024, y finalizó el día 29 de febrero de 2024, habiéndose recibido 4 solicitudes Se han otorgado ayudas a 3 entidades por la ejecución de 7 programas en los que se prevé la participación de 190 personas jóvenes cualificadas.

El plazo de ejecución de las actuaciones finaliza el 28 de junio de 2025. La cuantía total de las ayudas del otorgadas ha ascendido a 221.763,74 euros.

A.4. 2023ko ekitaldiko programa arautzen duen Dekretuaren babesean emandako laguntza-espedienteen jarraipena.

Ekintzen betetze-mailaren azterketa eta egindako gastuen justifikazioa, urte askotako azken ordainketak izapidetzeko. Ordainketa horiek lan-munduan txertatzen laguntzeko 122 programaren eta esku-hartze goiztiarreko 3R Gaztearen 8 programaren 2024ko ekitaldiaren kargura egingo dira, zeinak Bizkaian lan-aukerak sustatzeko martxoaren 14ko 24/2023 Foru Dekretuari baitagozkio.

B. Gazte on

B.1 GAZTE ON programa 2024

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 27ko 73/2024 Foru Dekretuaren bidez, dirulaguntza batzuen oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira 2024ko ekitaldirako, enplegu- eta prestakuntza-programa mistoen bitartez ibilbide integral eta pertsonalizatu batzuk martxan jartzeko Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak gazteei laguntzeko duen programan daudenentzat.

Dirulaguntza horien helburua da gazteak lan-merkatuan sar daitezen sustatzea, ibilbide integral eta pertsonalizatuak abian jarrita betiere, enplegu eta prestakuntzako programa mistoen bidez, Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak 2024ko ekitaldian gazteei arreta emateko duen programako kideentzat.

Dekretuan jasotako jarduketetan parte hartu ahal izango dute gizartean eta lan-munduan txertatzeko ibilbidea hasten den egunean honako baldintza hauek betetzen dituzten 18 eta 23 urte bitarteko pertsonek: Gizarte Inklusioa Sustatzeko Zuzendaritza Nagusiak gazteei laguntzeko duen estrategiaren erabiltzaileak izatea edo estrategia horren plaza-eskatzailea izatea, betiere gizarte-diagnostiko espezializatuak zehazten badu gizarteratze- eta laneratze-ibilbidea dela pertsona horrentzat esku-hartze egokiena.

A.4. Seguimiento de los expedientes de ayuda otorgados al amparo del Decreto regulador del programa del ejercicio 2023.

El 01/10/2022 se implantaron subvenciones destinadas a personas físicas usuarias de la infraestructura AP-68 (autopista Bilbao-Zaragoza) en los tramos sometidos a peaje y de titularidad de las diputaciones forales. En este primer semestre de 2024 el importe de las subvenciones ha sido de 842.049,11 euros.

Interbiak Bizkaia SAMPk amaitu ditu Metropoli Hegoaldeko Saihesbidearen 1b faseko obrak.

1. Ustiapena

Zerbitzu horren jarduerak honako hauek dira:

1. BAIMENAK/BIDERAGARRITASUNAK.
2. KALTEEN ORDAINAK.
3. AURRETIAZKO JARDUKETAK.
4. ZEHAPENAK.
5. ONDARE-ERANTZUKIZUNA.

1.1.- BAIMENAK/BIDERAGARRITASUNAK

Garatutako jarduera baimen-/bideragarritasun-espedienteak izapidetzeko prozesuan oinarritzen da. Izapide hori garatzeko, lehenik eta behin, azterketa teknikoa egin eta txosten teknikoak prestatu behar dira, egin nahi den jarduera gauzatzeko aukera zehazte aldera. Ondoren, baimendutako, atzera egindako edo ukatutako espediente bakoitzari dagokionez, errepideen ondoko eremuetan partikularrek egindako jarduketen jarraipena egingo da *in situ*. Egindako jarduerak bat datozen ala ez zehazteko, jarraipen-txostenak eta obraren amaierako txostenak egin beharko dira. Txostenen tipologiak askotarikoak dira, alegia, errepideen ertzetan egin nahi diren jarduera guztien araberakoak dira (adibidez, urbanizazioak, sarbideak, kanalizazioak, etab.). Askotarikoak dira bidearen titular gisa garraio bereziak egiteko bideragarritasun-txostenak ere. Txosten horien guztien helburua da Bizkaiko Foru Aldundiaren Errepide eta Bizikleta Bideen Sarearen eta haren babes-eremuen erabilera kontrolatzea, modu ezin hobean erabili eta kontserbatzeko.

Respecto a Interbiak Bizkaia S.A.M.P., ha finalizado las obras de la fase 1b de la Variante Sur Metropolitana.

1. Explotación

Las actividades de este Servicio son las siguientes:

1. AUTORIZACIONES/VIABILIDADES.
2. RESARCIMIENTOS DE DAÑOS.
3. ACTUACIONES PREVIAS
4. SANCIONES.
5. RESPONSABILIDAD PATRIMONIAL.

1.1.- AUTORIZACIONES / VIABILIDADES

La actividad desarrollada se centra en el proceso de tramitación de expedientes de autorización/viabilidad. El desarrollo de esta tramitación conlleva, en primer lugar, un trabajo de análisis técnico y elaboración de informes técnicos que determinen la posibilidad de llevar a cabo la actuación pretendida. Posteriormente cada uno de los expedientes correspondientes tanto autorizados como desistidos o denegados conlleva un seguimiento in situ de las actuaciones llevadas a cabo por los particulares en las zonas adyacentes a las carreteras. La conformidad o no de las actuaciones realizadas conllevará la realización de informes de seguimiento e informes finales de obra. Las tipologías de informes son muy variadas, dependientes de todas las actividades que puedan ser pretendidas llevar a cabo en las márgenes de las carreteras (p.e. urbanizaciones, accesos, canalizaciones, etc.), incluyendo también los informes de viabilidad para la realización de transportes especiales como titulares de la vía. El objetivo de todos estos informes es el control del uso de la Red de Carreteras y Vías Ciclistas de la Diputación Foral de Bizkaia y de sus zonas de protección al objeto de preservarlas en óptima forma de utilización y de conservación permanente.

1.2.- KALTEEN ORDAINAK.

Bizkaiko errepideei buruzko 5/2021 Foru Arauaren 60. artikuluan xedatutakoaren babesean, espediente mota horren azken helburua da foru-titulartasuneko errepide eta bizikleta-bideei, horien elementu funtzionalei edo seinaleztapen eta balizei egindako kalteak konpontzeak dakarren gastua ordaintzea; izan ere, horiek konpontzera behartzen gaituzte, kostu jakin batekin, erabilera anormal bat dagoenean; erabilera horren adibide zuzena errepideko istripua izango litzateke.

1.3.- AURRETIAZKO JARDUKETAK.

Bizkaiko errepideei buruzko urriaren 20ko 5/2021 Foru Arauaren 51. artikuluaren eta Bizkaiko bizikleta-bide foralei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauaren 53. artikuluaren babesean hasten dira, aipatutako araudi sektoriala ez betetzearen aurrean legezkotasuna babeste aldera. Funtsean, honako hau lortu nahi da: araua ezagutzea, errepideen eta bizikleta-bideen zerbitzu publikoa izatea eta ondasun orokorrak eta publikoak beste edozein jarduketaren aurrean lehentasuna izatea.

1.4.- ZEHAPENAK

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean horretarako xedatutakoaren arabera izapidetu dira. Bizkaiko errepideei buruzko 5/2021 Foru Arauaren V. kapituluaren 3. atalean eta Bizkaiko bizikleta-bide foralei buruzko ekainaren 27ko 10/2014 Foru Arauaren IV. kapituluaren 4. atalean tipifikatutako edozein arau-hauste egiten dutenen aurka irekiko dira, baldin eta, hala badagokio, arau-hausleak ez baditu zuzendu, nahiz eta horretarako irekitako aurretiazko jarduketen espedientearen bidez zuzendu ahal izan.

1.2.- RESARCIMIENTOS DE DAÑOS.

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 60 de la Norma Foral 5/2021, de carreteras de Bizkaia, la finalidad última de este tipo de expedientes es la de resarcirnos del gasto que supone la reparación de los daños a las carreteras y vías ciclistas de titularidad foral, a sus elementos funcionales o a la señalización y balizamiento; puesto que nos abocan a la reparación de los mismos con un coste determinado, derivado de un uso anormal y cuyo ejemplo más directo es el accidente de carretera.

1.3.- ACTUACIONES PREVIAS.

Incoados al amparo del artículo 51 de la Norma Foral Norma Foral 5/2021, de 20 de octubre de Carreteras de Bizkaia, y del artículo 53 de la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de Vías Ciclistas Forales, con la finalidad de proteger la legalidad ante incumplimientos de la citada normativa sectorial; lo que se pretende fundamentalmente es el conocimiento de la Norma, el hecho del servicio público de la carretera y vías ciclistas y el hecho final de la necesidad de que el bien general y público debe primar ante cualquiera otra actuación.

1.4.- SANCIONES

Tramitados a la luz de lo dispuesto al efecto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Su incoación procederá contra quienes cometan cualquiera de las infracciones tipificadas en la Sección 3ª del Capítulo V de la Norma Foral 5/2021, de carreteras de Bizkaia y en la Sección Cuarta del Capítulo IV de la Norma Foral 10/2014, de 27 de junio, de Vías Ciclistas Forales, y que, pudiendo, en su caso, haber sido corregidas por el infractor a través del expediente de Actuaciones Previas incoado al efecto, no lo han sido.

1.5.- ONDARE-ERANTZUKIZUNA

Zerbitzu publikoen funtzionamendua dela-eta partikularren ondasunak eta eskubideak kaltetzeagatik Administrazio Publikoak duen ondare-erantzukizuna Konstituzioaren 106. artikuluan dago aurreikusita, eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean garatzen da.

Partikularrek eskubidea dute beren ondasun eta eskubideetan izandako edozein kalteren ordaina jasotzeko. Hori dela eta, espediente horiek izapidetzen dira, zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta gertatutako kaltearen arteko kausalitate-harremana zalantzarik gabea izanik, foru-errepide eta bizikleta-bideen zerbitzu publikoaren funtzionamenduak eragindako kalte-galerak ordaintzea bidezkoa dela zehazteko.

2024/01/01 eta 2024/06/30 bitartean espediente hauek ireki dira:

Baimenak	1.125
Kalteen ordainak	395
Aurretiazko jarduketak	173
Zehapenak	27
Ondare-erantzukizuna	60

Zerbitzuaren lana ia guztiz funtzionarioek egiten dute; hala ere, kanpoko laguntza-lan puntualak behar izaten dituzte, lan espezifikoak direlako eta ez dutelako horiek garatzeko tresna egokirik.

KONTRATUAK:

– Bizkaiko Foru Aldundiaren gaitasun handiko sareko errepideen ustiapena, erabilerari eta defentsari dagokienez.

1.5.- RESPONSABILIDAD PATRIMONIAL

La responsabilidad patrimonial de la Administración Pública por lesión de bienes y derechos de los particulares con ocasión del funcionamiento de los servicios públicos está prevista en el artículo 106 de la Constitución y desarrollada en la ley 39/2015, de 1 de octubre Procedimiento Administrativo Común y en la ley 40/2015, de la misma fecha, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas.

Dado que los particulares tienen derecho a ser indemnizados de toda lesión que sufran en cualquiera de sus bienes y derechos, este tipo de expedientes son tramitados con la finalidad de determinar que siendo inequívocas la relación de causalidad entre el funcionamiento del servicio público y la lesión producida, efectivamente procede indemnizar los daños y perjuicios ocasionados con ocasión del funcionamiento del servicio público de carreteras y vías ciclistas forales.

El número de expedientes abiertos entre el 01/01/2024 y el 30/06/2024 ha sido:

- Autorizaciones 1.125
- Resarcimiento de daños 395
- Actuaciones Previas 173
- Sancionadores 27
- Responsabilidad Patrimonial 60

El trabajo del Servicio es llevado a cabo prácticamente de manera íntegra por personal funcionario, requiriendo de trabajos puntuales de apoyo externo por la especificidad de los mismos y por no disponer de herramientas adecuadas para su desarrollo.

CONTRATOS:

– Explotación de carreteras de la red de alta capacidad de la Diputación Foral de Bizkaia, en cuanto a su uso y defensa.

– Bizkaiko Foru Aldundiko 1., 2. eta 3. eremuetako errepide-sarea ustiatzea.

– Ustiapen-zerbitzuari laguntza teknikoa ematea txostenak prestatzen laguntzeko beharrezkoak diren azterlan osagarriak egiteko.

2. Desjabetzeak eta Ukituriko Zerbitzuak

Sailaren, Interbiak-en eta Garraio, Mugikortasun eta Turismo Sailaren obrak egiteko beharrezkoak diren desjabetzeak eta ukitutako zerbitzuen birjarpenak izapidetzea (Lezamako Bide Zaharra) .

Eragindako zerbitzuei dagokienez, honako proiektu hauekin lotuta hasitako jarduerak burutu dira: BI-2235 errepidea Busturian eta Muruetan; BI-735 errepidea Makro inguruan hobetzea; Arenako bidegorria III. fasean, Mamarigan; eta itsasadarreko oinezkoen ardatza, Lutxana–Altzaga tartea). Ekitaldi honetan gauzatu beharreko jarduera berrietan lan egin da, proiektu hauen ondorioz: BI-2301 errepidea Mallabian, BI-633 errepidearen eta BI-2636 errepidearen arteko lotunea; La Avanzadako estalkia, Traslaviñako biribilgunea, Rontegi-Gurutzeta, Ibaizabal eta Txorierriko bizi-bideak, Gaztelugatxerako irisgarritasuna hobetzea Lurgorri inguruan eta Markina-Xemein eta Etxebarria arteko bizikleta-bidea luzatzea. Lan egin da ere Loiuko biribilguneen proiektuan, oraindik idazketa fasean.

Desjabetzeei dagokienez, jarduketak egin dira sei espedientetan; horietako bi espediente proiektu berriei dagozkie Mallabian eta BI-630 errepideko biribilgunean, Traslaviñan), eta gainerakoak jada hasita edo amaituta dauden obretan. Ibaizabal eta Txorierriko bizikleta-bideei dagozkien espedienteak lantzen hasi gara, eta udalen bost kudeaketa-gomendiori dagozkien lanei ekin diegu edo horiek egiten jarraitu dugu.

Jabetza-erregistroei dagokienez, jarduketak egin dira hamabost proiektutan, eta horietatik gehienak amaitutako obren inskripzioei dagozkie.

– Explotación de la red de carreteras de las áreas 1, 2 y 3 de la Diputación Foral de Bizkaia.

– Asistencia técnica al servicio de explotación para la realización de estudios complementarios necesarios para la ayuda a la realización de informes.

2. Expropiaciones y Servicios Afectados

Tramitación de las expropiaciones y las reposiciones de servicios afectados necesarios para la ejecución de las obras del departamento, de Interbiak y del departamento de Transportes, Movilidad y Turismo (Vía vieja de Lezama).

En relación con los servicios afectados se han completado las actuaciones iniciadas en relación con los siguientes proyectos: BI-2235 en Busturia y Murueta, mejora de la BI-735 en el entorno de Makro, bidegorri de la Arena Fase III en Mamariga, y eje peatonal Ria tramo Lutxana Altzaga). Se ha trabajado en nuevas actuaciones a ejecutar este ejercicio derivadas de los siguientes proyectos: BI-2301 en Mallabia, conexión de la BI-633 con la BI-2636, cubrimiento de La Avanzada, rotonda de Traslaviña, Rontegi-Cruces, bicipistas del Ibaizabal y del Txorierri, mejora de accesibilidad a Gaztelugatxe en la zona de Lurgorri y prolongación de la vía ciclista entre MarkinaXemein y Etxebarria.También se ha trabajado en el proyecto de rotondas en Loiu, todavía en fase de redacción.

En expropiaciones se ha actuado en seis expedientes, de los que dos corresponden a proyectos nuevos en Mallabia y rotonda en la BI-630 en Traslaviña) y el resto a obras ya iniciadas o finalizadas. Se ha empezado a trabajar en los expedientes correspondientes a las bicipistas del Ibaizabal y del Txorierri y se han continuado o iniciado los trabajos correspondientes a cinco encomiendas de ayuntamientos.

A nivel de Registros de la Propiedad se ha actuado en quince proyectos, de los que la gran mayoría corresponden a inscripciones de obras ya finalizadas.

3. Bideen Berrikuntza

3.1. Errepideen sarearen egitura- eta funtzio-inbentarioa eta -auskultazioa.

Errepideen ezaugarri fisikoen eta funtzionalen inbentarioa mantentzea. Mantendutako datuen artean honako hauek daude: geometria, seinaleztapen horizontaleko eta bertikaleko elementuak, balizak eta segurtasun-elementuak, nazioarteko erregulartasun-indizea, zeharkako marruskadura-koefizientea eta deflexioa.

Zubiak kudeatzeko sistemaren mantenua, 2017a baino lehenagoko egituretako foru-ikuskapen orokorren kanpainetan ezarria. Kudeatzeko sistemaren bidez, inbentariatutako egituren datuak ustiatzen dira.

Errepideen sarean eta horri lotuta dauden elementuetan gertatu diren aldarazpen guztien eguneratze grafikoa, betearazi diren obra berriak sartuz, udalei lagapenean emandako tarteei baja emanez eta Bizkaiko Errepideen LPSan eta EAEEPOn ezarritako jarduketak sartuz. Errepideen katalogoa eguneratzea.

3.2. Errepideen GISa

Sailaren informazio geografikoaren sistema indartsu batean datuak ustiatzeko aukera ematen duten berariazko GIS garapenak ezartzeko prozesuekin jarraitzea. GISak foru-zerbitzu eta -sail desberdinei informazioa eskuratzeko aukera ematen die, eta, hala, sailaren oinarrizko informazio-iturria da.

GIS Web aplikazioa mantentzea eta hobetzea, zeinak gailu mugikorren bidez GISaren datuak urrunetik eskuratzeko aukera ematen baitu. Berariazko erabiltzaileentzako aplikazioak garatzea.

BFAren GIS Estrategiaren ekimenean parte hartzea eta elkarlanean aritzea.

3. Innovación Viaria

3.1. Inventario y auscultación estructural y funcional de la red de carreteras.

Mantenimiento del inventario de las características físicas y funcionales de las carreteras. Entre los datos mantenidos figuran: geometría, elementos de señalización horizontal y vertical, balizamiento y elementos de seguridad, Índice de Regularidad Internacional, Coeficiente de Rozamiento Transversal y Deflexión.

Mantenimiento del Sistema de Gestión de Puentes implementado en campañas de inspección generales forales de estructuras anteriores a 2017. Mediante el sistema de gestión se explotan los datos de estructuras inventariadas.

Actualización gráfica de todas las modificaciones producidas en la Red de Carreteras y elementos vinculados, integrando las nuevas obras ejecutadas, eliminando las cesiones a los ayuntamientos, y la incorporación de variaciones según los criterios establecidos en el PTS de carreteras de Bizkaia y en el PGCPV. Actualización del catálogo de Carreteras.

3.2. GIS de carreteras

Continuación con los procesos de implementación de desarrollos GIS específicos que permiten la explotación de datos en un potente Sistema de Información Geográfica del Departamento. El GIS permite el acceso a información de diferentes Servicios y Departamentos forales constituyendo una fuente de información básica en el Departamento.

Mantenimiento y mejoras de la aplicación GIS Web que permite el acceso remoto a los datos del GIS desde dispositivos móviles. Desarrollo de aplicaciones para usuarios específicos.

Participación y colaboración en la iniciativa de Estrategia GIS de la DFB.

3.3. Errepideetan aplika daitezkeen obra-unitate berriak eta material berriak aztertzea eta analizatzea.

Bizkaiko errepideetan aplika daitezkeen material eta teknologia berriak aztertzen dira.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin lankidetzan, lohien errausketaren ondoriozko errautsen azterketari ekiten zaio, errepideetako bide-zoruen materialei dagokienez, horiek izan ditzaketen aprobetxamendu-eremuak aztertzeko.

3.4. Bide-azpiegituretako berrikuntza plana

"Bizkaiko 2024-2027 Bide Azpiegituretako Berrikuntza Plana" dokumentua diseinatu eta idaztea.

Topaketak gauzatzea eta bultzatzea sail barruan eta kanpoko enpresekin, errepideen foru-sareko proposamen teknologiko berritzaileen diseinua eta garapena aztertzeko.

3.5. Europako programak

Europar Batasuneko funts-programetan (NEXT GENERATION, FEDER, CEF-Transport eta Horizon Europe) aurkez daitezkeen sailaren jarduketak eta proiektuak koordinatzea eta kudeatzea.

Proiektuak Europako programetara aurkezteko aholkularitza eta laguntza teknikoko kontratuaren zuzendaritza. Haren xedeak eta irismenak Europar Batasuneko programetan proiektuak aurkeztearekin lotutako jarduerak nahiz berrikuntzaren erosketa publikoaren jarduerak barne hartzen ditu.

3.6. Teknologia berriak

BIM. Sailaren barruan, BIM metodologiaren ezarpen progresiboa aztertzeko, analizatzeko eta

3.3. Estudio y análisis de nuevas unidades de obra y nuevos materiales de potencial aplicación en carreteras.

Se analizan potenciales nuevos materiales y tecnologías para su aplicación en carreteras de Bizkaia.

En cooperación con el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia, se aborda el estudio de las cenizas procedentes de la incineración de lodos al objeto de analizar sus potenciales campos de aprovechamiento en los materiales de firmes de carreteras.

3.4. Plan de innovación en infraestructuras viarias

Diseño y redacción del documento “Plan de Innovación en infraestructuras viarias de Bizkaia 2024-2027”.

Desarrollo e impulso de encuentros intradepartamentales y con empresas externas con el fin de explorar el diseño y desarrollo de propuestas tecnológicas innovadoras en la red foral de carreteras.

3.5. Programas europeos

Coordinación y gestión de las actuaciones y proyectos del Departamento susceptibles de presentación a los programas de Fondos de la Unión Europea: NEXT GENERATION, FEDER, CEF-Transport y Horizon Europe.

Dirección del contrato de consultoría y asistencia técnica para presentación de proyectos a programas europeos. Su objeto y alcance incluye tanto actividades vinculadas a la presentación de proyectos en programas de la Unión Europea como de la compra pública de innovación.

3.6. Nuevas tecnologías

BIM. Coordinación dentro del Departamento de las actividades encaminadas al estudio, análisis y

ebaluatzeko jarduerak koordinatzea, Bizkaiko beste eragile publiko eta pribatu batzuekiko lankidetza barne.

Bideen Berrikuntzarako Zerbitzuari aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko kontratuaren zuzendaritza. Haren xedeak eta irismenak, batez ere, bideen berrikuntzaren arloko ekintza-ildoei eta aholkularitza estrategikoari lotutako jarduerak jasotzen ditu.

Bizkaiko Foru Aldundiko errepideak digitalizatzeko aholkularitza eta laguntza teknikoa emateko kontratuaren zuzendaritza.

3.7. Dirulaguntzen dekretua

Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 2ko 49/2020 FORU DEKRETUAREN jardueren kudeaketa. Foru-dekretu horren bidez oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira 2020. urtean bide-azpiegituretan berrikuntza sustatzeko dirulaguntzak emateko (2020/06/10eko BAO). Azken fasea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 18ko 70/2021 FORU DEKRETUA onetsi da. Foru-dekretu horren bidez oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira 2021. urtean bide-azpiegituretan berrikuntza sustatzeko dirulaguntzak emateko (2021/05/24ko BAO). Gauzatze-fasea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren maiatzaren 10eko 70/2022 FORU DEKRETUA onetsi da. Foru-dekretu horren bidez onesten dira 2022. urtean bide-azpiegituretan berrikuntza sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia. (2022/05/20ko BAO). Egikaritze-fasean.

Honako hau onetsi da: Bizkaiko Foru Aldundiaren 59/2023 FORU DEKRETUA, maiatzaren 2koa, zeinaren bidez onesten baitira 2023. urtean bide-azpiegituretan berrikuntza sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia (2023-05-16ko BAO).Egikaritze-fasean.

evaluación de la implantación progresiva, incluyendo la colaboración con otros agentes públicos y privados de Bizkaia, de la metodología BIM.

Dirección del contrato de consultoría y asistencia técnica al Servicio de Innovación Viaria. Su objeto y alcance contempla principalmente actividades vinculadas a las líneas de acción y consultoría estratégica en materia de Innovación Viaria.

Dirección del contrato de consultoría y asistencia técnica para la digitalización de las carreteras de la Diputación Foral de Bizkaia.

3.7. Decreto de subvenciones

Gestión de las actividades del DECRETO FORAL 49/2020, de 2 de junio (B.O.B. de 10/06/2020), de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones para la promoción de la innovación en las infraestructuras viarias 2020. Fase final.

Se ha aprobado el DECRETO FORAL 70/2021, de 18 de mayo (B.O.B. de 24/05/2021), de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones para la promoción de la innovación en las infraestructuras viarias 2021. Fase de Ejecución.

Se ha aprobado el DECRETO FORAL 70/2022, de 10 de mayo (B.O.B. de 20/05/2022), de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones para la promoción de la innovación en las infraestructuras viarias 2022. Fase de Ejecución.

Se ha aprobado el DECRETO FORAL 59/2023, de 2 de mayo (B.O.B. de 16/05/2023), de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones para la promoción de la innovación en las infraestructuras viarias 2023. Fase de Ejecución.

Bizkaiko Foru Aldundiaren apirilaren 25eko 46/2024 FORU DEKRETUA onetsi da. Foru-dekretu horren bidez onesten dira 2024. urtean bide-azpiegituretan berrikuntza sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia. (2024/05/8ko BAO). Argitaratze-fasea.

Se ha aprobado el DECRETO FORAL 46/2024, de 25 de abril (B.O.B. de 8/05/2024), de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones para la promoción de la innovación en las infraestructuras viarias 2024. Fase de publicación.

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Saila eta Programa / Departamento y Programa

10	**AZPIEGITURAK ETA LURRALDE GARAPENA** ***INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL***
453115	**BERRIKUNTZA, USTIAPENA ETA DESJABETZEAK** ***INNOVACIÓN, EXPLOTACIÓN Y EXPROPIACIONES***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
1	**BIDEEN BERRIKUNTZA** ***INNOVACIÓN VIARIA***			
1	ERREPIDEETAN TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA SUSTATZEA *PROMOCIÓN DE TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN EN CARRETERAS*			
1	Berrikuntza-proiektuen kopurua *Nº de proyectos de innovación*	5	5	5
2	**DESJABETZEAK ETA UKITUTAKO ZERBITZUAK** ***EXPROPIACIONES Y SERVICIOS AFECTADOS***			
1	DESJABETZEAK ETA UKITUTAKO ZERBITZUAK *EXPROPIACIONES Y SERVICIOS AFECTADOS*			
1	Desjabetze-proiektuen kopurua *Número de proyectos expropiatorios*	2	2	2
2	Ukituriko zerbitzuen kopurua *Número de servicios afectados*	2	2	4
3	**USTIAPENA** ***EXPLOTACIÓN***			
1	USTIAPENA *EXPLOTACIÓN*			
1	Izapidetutako baimenen kopurua *Número de autorizaciones tramitadas*	1.900	1.900	1.125
2	Euskal ondarearen erabilera eta babesari buruz izapidetu diren baimenen kopurua *Número de autorizaciones sobre el uso y protección del patrimonio viario tramitadas*	1.900	1.900	1.125
3	Izapidetu diren ondare-erantzukizuneko espedienteen kopurua *Número de expedientes de responsabilidad patrimonial tramitados*	129	129	60
4	**EZARPEN BERRIKO ETA HOBEKUNTZAKO LANAK EGITEA** ***EJECUCIÓN DE OBRAS DE NUEVA IMPLANTACIÓN Y MEJORA***			
1	EZARPEN BERRIKO ETA HOBEKUNTZAKO LANAK EGITEA *EJECUCIÓN DE OBRAS DE NUEVA IMPLANTACIÓN Y MEJORA*			
1	Interbiak egiten ari den lanen kopurua *Nº de obras ejecutándose por Interbiak.*	2	2	2

Bizkaia
ogasun eta finantza saila
departamento de hacienda y finanzas

HERRI ZORRA
DEUDA PÚBLICA

Gastu-programak gauzatzeari buruzko txostena
Informe sobre Realizaciones de los Programas de Gasto

Aldia: Urtarrila - Ekaina
Periodo: Enero - Junio

Saila		**HERRI ZORRA**
Departamento	**20**	**DEUDA PÚBLICA**
Programa		**Herri zorra**
Programa	**011.101**	***Deuda Pública***

2024ko lehen seihilekoan hainbat ekintza egin dira funtsean programaren izenetik beretik eratortzen den edukia estaltzeko.

En el primer semestre del año 2024 se han llevado a cabo diversas acciones destinadas fundamentalmente a cubrir el contenido que se deriva del propio nombre del programa.

Bizkaiko Foru Aldundiak, 2024ko apirilaren 11n egindako bileran (gai-zerrendako 9. gaia), baimena eman zuen "2024. urteko aurrekontu-zorpetzeari dagozkion eragiketak egiteko (gehienez 184.492.667,00 euro)", bai eta "dagokion ekitaldiko aurrekontuari zorpetze-eragiketa horietatik datozen funtsak, amortizazioa eta eragiketetatik eratorritako gainerako gastuak" aplikatzeko ere. Ahalmena eman zitzaion "Ogasun eta Finantzetako foru-diputatuari formalizatu beharreko zorpetze-mota, epea, interes-tasa eta zorpetze horren gainerako ezaugarriak adierazteko, bai eta eragiketa horrekin edo indarrean dauden gainerako eragiketekin zerikusia duten eta beharrezkotzat jotzen dituen ondorengo finantza- eta izapidetze-eragiketak hitzartu eta kudeatzeko ere; eta horretarako, behar diren agiriak eman beharko ditu, eragiketa hori formalizatu eta gauzatzeko. (...)"

La Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de 11 de abril de 2024 (asunto 9 de Orden del día) acordó la autorización "(...) a la realización de operaciones de endeudamiento presupuestario del año 2024, por un importe de hasta 184.492.667,00 euros", así como que, se aplicasen "al presupuesto del ejercicio correspondiente tanto los fondos provenientes de dichas operaciones de endeudamiento, como la amortización y demás gastos derivados de las mismas", facultándose "a la Diputada Foral de Hacienda y Finanzas para que señale el tipo de endeudamiento a formalizar, el plazo, tipo de interés y demás características de dicho endeudamiento, así como para la concertación y gestión de aquellas operaciones financieras y de tramitación posteriores que, relacionadas con esta operación o con el resto de operaciones vigentes, considere necesarias, otorgando para ello los documentos que sean precisos para su formalización y ejecución. (...)"

2024ko ekainaren 30ean, oraindik ez dira aztertu edo formalizatu Foru Administrazioaren zorpetze-aukerak, aurreikusitako diru-sarreren eta gastuen benetako bilakaeraren zain.

A 30 de junio de 2024, aun no se han analizado ni formalizado las distintas alternativas para el endeudamiento de la Administración Foral, a la espera de la evolución real de los ingresos y gastos previstos.

Epe luzeko dagoen zorpetzeari dagokionez, finantza-kargaren ordainketen 41 espediente izapidetu dira, eta horietatik 29 interesenak izan dira, 7 komisioenak eta 5 amortizazioenak; izapide horien aurretik interes-tasen finkapenen kontrola egin da.

Por lo que al endeudamiento a largo plazo se refiere, se han tramitado 41 expedientes de pagos de la carga financiera, de los que 29 han sido de intereses, 7 de comisiones y 5 de amortizaciones; previo a dichas tramitaciones se ha realizado el control de las fijaciones de tipos de interés.

Azkenik, 2024ko ekitaldian, Aldundiaren finantza-kalifikaziorako berezko lanak mantentzen jarraitu da, hiru rating-agentzien bitartez. Hona hemen gure egungo kalifikazioak: A3 positiboa, AA- egonkorra eta AA- egonkorra Moody´s, Standard & Poor´s eta Fitch agentzietan, hurrenez hurren. Kalifikazio horiek Espainiako Erresumakoak baino handiagoak izan dira eta izaten jarraitzen dute, baina, rating-agentzien barne-arauak direla medio, ezin dituzte horiek maila bat, bi edo hiru baino gehiagotan gainditu.

Por último, en el ejercicio 2024 se han seguido manteniendo los trabajos propios para la calificación financiera de la Diputación a través de las tres Agencias de Rating. Nuestras calificaciones actuales son: A3 positiva, AA- estable y AA- estable en las Agencias Moody´s, Standard & Poor´s y Fitch respectivamente. Estas calificaciones han sido y siguen siendo superiores a las del Reino de España, pero, por normas internas de las Agencias de Rating, no pueden superar a las mismas en más de uno, dos o tres niveles.

Saila eta Programa / Departamento y Programa

20	**HERRI ZORRA** ***DEUDA PÚBLICA***
011101	**HERRI ZORRAREN KONTROLA** ***CONTROL DEUDA PUBLICA***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Actividad e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
1	**FORU ZORPETZEAREN KUDEAKETA.** ***GESTIÓN DEL ENDEUDAMIENTO FORAL.***			
1	ZORPEKETA ERAGIKETA BERRIAK AZTERTU, PROPOSATU ETA FORMALIZATZEA. *ESTUDIO, PROPUESTA Y FORMALIZACIÓN DE NUEVAS OPERACIONES DE ENDEUDAMIENTO.*			
1	Aztertu diren zorraren egituren aukerak *Nº alternativas analizadas de estructura de la deuda*	3	3	
2	Finantza-erakundeekin egindako kontaktu kopurua *Nº de contactos con entidades financieras*	12	12	6
3	Formalizatutako eragiketa berrien kopurua *Nº de nuevas operaciones formalizadas*	1	1	
2	INDARREAN DAUDEN ZORPEKETA-ERAGIKETAK KUDEATZEA. *GESTIÓN DE OPERACIONES DE ENDEUDAMIENTO EN VIGOR.*			
1	Izapidetutako amortizazio kopurua *Nº de amortizaciones tramitadas*	12	12	5
2	Izapidetu diren epe laburrerako eta luzerako interesen likidazioen kopurua *Nº de liquidaciones de intereses tramitadas a c/p y l/p*	61	63	33
3	Izapidetutako beste gastu batzuen likidazio kopurua *Nº de liquidaciones de otros gastos tramitadas*	13	13	7
4	Epe laburrerako eta luzerako interes-tasen zehaztapenen kopurua *Nº de fijaciones de tipos de interes a c/p y l/p*	34	38	16
3	INDARREAN DAUDEN ERAGIKETAK DEUSEZTATU EDO ALDATZEKO AZTERKETA ETA PROPOSAMENA EGITEA *ESTUDIO Y PROPUESTA DE CANCELACIÓN O MODIFICACIÓN DE OPERACIONES VIGENTES.*			
1	Aztertu beharreko eragiketen kopurua *Nº de operaciones a estudiar*	1	1	
2	Finantza-erakundeekin egindako kontaktu kopurua *Nº de contactos con entidades financieras*	2	2	
4	FORU ZORPEKETARI BURZKO INFORMAZIOA *INFORMACIÓN SOBRE EL ENDEUDAMIENTO FORAL.*			
1	Batzar Nagusietarako txosten kopurua *Nº de informes para JJGG*	15	15	8
2	Beste erakunde batzuetarako txosten kopurua *Nº de informes para otras instituciones*	24	23	13
2	**BERMEAK EMATEA.** ***PRESTACION DE GARANTIAS.***			

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Gastuen Egitarauen Ebaluaketa (Helburuak)
Evaluación de los Programas de Gastos (Objetivos)

Epekotasuna: Urtarrila / Ekaina
Periodo: Enero / Junio

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Zenbat. / *Cuantifi.*		Egit / *Realiz.*
		Hasi. / *Ini.*	Ora. / *Act.*	
1	BERMEAK EMATEARI BURUZKO INFORMAZIOA. *INFORMACIÓN DE LA PRESTACIÓN DE GARANTÍAS.*			
1	Batzar Nagusietarako txosten kopurua *Nº de informes para JJGG*	18	18	8
2	Beste erakunde batzuetarako txosten kopurua *Nº de informes para otras instituciones*	19	18	10
2	ERAGIKETA BERRIAK FORMALIZATZEA. *FORMALIZACIÓN DE NUEVAS OPERACIONES.*			
1	Formalizatutako eragiketa kopurua *Nº de operaciones formalizadas*			

ERAKUNDE ARTEKO KONPROMISOAK
COMPROMISOS INSTITUCIONALES

Saila		**ERAKUNDEEN ARTEKO KONPROMISOAK**
Departamento	**21**	**COMPROMISOS INSTITUCIONALES**
Programa		**Erakundeen arteko konpromisoak**
Programa	**941.128**	***Compromisos Institucionales***

1.- Kupoa Estatuari

Apirilaren 3ko 10/2023 Legeak 2022-2026 bosturtekorako Euskadiko kupoa zehazteko metodologia onartu zuen.

2022-2026 bosturtekoari aplikatu beharreko ekarpenei buruzko urriaren 7ko 4/2021 Legearen 17.1 artikuluak agintzen duen bezala, lurralde historiko bakoitzak Estatuari ordaindu beharreko kupo likidoari egingo dion ekarpena eta kupoa zehazteko indarrean dagoen metodologian ezarritako konpentsazioetan izango duen partaidetza zehazteko ekarpen-koefiziente horizontala aplikatuko zaie dagozkien zenbatekoei; testuak artikulu horren 3) atalean gaineratzen duenez erabili beharreko koefizienteak dagozkien finantza-fluxuak egiten diren ekitaldiari dagozkionak izango dira. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak (HDEK) 2023ko urriaren 11n 2024ko ekitaldirako koefizienteak onartu zituen: %15,87 Arabarako, %50,49 Bizkairako eta %33,64 Gipuzkoarako.

Kupoaren metodologiaren 12.lau artikuluarekin bat kupoaren hurrengo ekitaldiko maiatzean egingo da behin betiko likidazioa eta, 13. artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak ekitaldi bakoitzean ingresatu beharreko zenbatekoa hiru epe berdinetan ordainduko zaio Estatuko Ogasun Publikoari, maiatzean, irailean eta abenduan.

Beraz, 2024ko lehen seihilekoan, 2024ko behin-behineko kupoaren lehen epea ordaintzea eta 2023ko kupoaren likidazioa egitea egokitu da.

Metodologia horren 9. eta 10. artikuluen arabera, abiaburu-urtearen ondorengo bosturtekoaren urteetako kupo likidoa behin-behinean zehaztuko da abiaburu-urteko kupoari eguneratze-indize

1.- Cupo al Estado

La Ley 10/2023, de 3 de abril, aprobó la metodología de señalamiento del cupo del País Vasco para el quinquenio 2022-2026.

El artículo 17.1 de la Ley 4/2021, de 7 de octubre, de aportaciones aplicable al quinquenio 2022-2026, prescribe que la contribución de cada territorio histórico al cupo líquido a pagar al Estado y su participación en las compensaciones previstas en la metodología de señalamiento del cupo vigente se determinará por aplicación sobre los respectivos importes del correspondiente coeficiente horizontal de aportación; añadiendo el apartado 3) de dicho artículo que los coeficientes a utilizar serán los correspondientes al ejercicio en que se realizan los respectivos flujos financieros. El Consejo Vasco de Finanzas Públicas (CVFP) de 11 de octubre de 2023 aprobó los coeficientes para el ejercicio 2024: 15,87% para Araba/Álava, 50,49% para Bizkaia y 33,64% para Gipuzkoa.

De acuerdo con el artículo 12. Cuatro de la metodología del cupo, la liquidación definitiva se realizará en mayo del ejercicio siguiente al que se refiera el cupo, y según su artículo 13, la cantidad a ingresar por la Comunidad Autónoma del País Vasco en cada ejercicio se abonará a la Hacienda Pública del Estado en tres plazos iguales, durante los meses de mayo, septiembre y diciembre del mismo.

Por tanto, en el primer semestre de 2024 ha correspondido efectuar tanto el pago del primer plazo del cupo provisional 2024 como la liquidación del cupo 2023.

Según los artículos 9 y 10 de la citada metodología, el cupo líquido de los años del quinquenio posteriores al año base se determinará provisionalmente por aplicación de un índice de

bat aplikatuta. Eguneratze-indizea kupo likidoari dagokion ekitaldiko Estatuko Sarreren Aurrekontuko I. eta II. kapituluetan agertzen den zerga itunduengatiko diru-sarreren aurreikuspenaren, autonomia-erkidegoei erabat lagatako zergak kanpo utzita, eta diru-sarreren arteko zatidura da, behar bezala homogeneizatuta, Estatuak zerga-kontzeptu berberengatik aurreikusiak bosturtekoaren abiaburu-urtean.

Horrela, eguneratze-indizea 1,0610193 da, eta EAEren 2024ko behin-behineko kupo likidoa 1.561.994.080 eurokoa. Zenbateko horretatik Bizkaiari dagokion (%50,49) 2024ko behin-behineko kupo likidoa 788.650.810,99 eurokoa da, eta 262.883.603,66 euroko ordainketa, hiru epeetako bakoitzean.

Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren (AMAS) adostutako mailaren finantzaketan Bizkaiak duen partaidetzari dagokion diru-sarrera kenduta (8.924.779,02 euro) eta, aldi berean, finantza-konpentsazioak (11.601.854,75 euro) eta enplegu-politika aktiboei eta horien handitzeei dagozkien kenkariak (75.174.567,49 euro) kenduta, Bizkaiak 2024ko behin-behineko kupo gisa ordaindu beharreko zenbatekoa 167.182.402,40 eurokoa izan zen maiatzean. Halaber, emaitza 13.502.652,03 eurotan murriztu behar da, 2024ko urtarrila-apirila bitartean Bizkaiak AMASaren gutxieneko mailaren finantzaketan duen partaidetzagatik. Beste alde batetik, 2022ko abenduaren 27ko Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan erabaki zen Euskal Autonomia Erkidegoak kreditu-erakundeen eta kredituko finantza-establezimenduen aldi baterako kargagatik eta aldi baterako energia-kargagatik Estatuko Administrazio Orokorrak lortutako diru-sarreretan parte hartzea. Sarrera horiek maiatzean, abenduan eta Estatuari ordaindu beharreko behin betiko kupoaren erregularizazioan ordainduko dira. Maiatzean 13.383.271,31 euroko sarrera egokitu zaio Bizkaiko Foru Aldundiari, 2023ko erregularizazio eta 2024ko maiatzeko epe gisa.

actualización al cupo del año base, siendo el índice de actualización el cociente entre la previsión de ingresos por tributos concertados, excluidos los tributos cedidos en su totalidad a las Comunidades Autónomas, que figure en los capítulos I y II del Presupuesto de Ingresos del Estado del ejercicio al que se refiera el cupo líquido y los ingresos, debidamente homogeneizados, previstos por el Estado por los mismos conceptos tributarios en el año base del quinquenio.

Así resulta un índice de actualización de 1,0610193 y un cupo líquido provisional 2024 para la CAPV de 1.561.994.080 euros. De dicho importe corresponde a Bizkaia (50,49%) un cupo líquido provisional 2024 de 788.650.810,99 euros y un pago de 262.883.603,66 euros en cada uno de los tres plazos.

Descontado el ingreso correspondiente a la participación de Bizkaia en la financiación del nivel acordado de Protección del Sistema para la Autonomía y Atención a la Dependencia (SAAD) (8.924.779,02 euros), las compensaciones financieras (11.601.854,75 euros) y las deducciones correspondientes a políticas activas de empleo y sus ampliaciones (75.174.567,49 euros), el importe a pagar por Bizkaia como cupo provisional 2024 en el plazo de mayo ascendió a 167.182.402,40 euros. Asimismo, el resultado debe minorarse por la participación de Bizkaia en la financiación del nivel mínimo del SAAD del periodo enero-abril 2024, por importe de 13.502.652,03 euros. Por otra parte, en Comisión mixta del Concierto Económico de 27 de diciembre de 2022, se acordó la participación de la Comunidad Autónoma Vasca en los ingresos obtenidos por la Administración General del Estado por el Gravamen temporal de entidades de crédito y establecimientos financieros de crédito y el Gravamen temporal energético, que se harán efectivos en mayo, diciembre y a la regularización del Cupo definitivo a satisfacer al Estado. En el plazo de mayo ha correspondido a favor de la Diputación Foral de Bizkaia un ingreso de 13.383.271,31 euros, en concepto de regularización del 2023 y plazo de mayo 2024.

Beste alde batetik 2023ko kupoaren likidazio gisa Bizkaiko Foru Aldundiak 57.551.152,72 euro ordaindu behar ditu, eta horri gehitu behar zaizkio AMASaren adostutako mailaren likidazioa (12.516,47 euro) eta enplegu-politika aktiboen likidazioa (7.251.710,62 euro), biak Estatuaren aldekoak direnak, eta 5.701.118,74 euroko finantza-konpentsazioak kendu behar zaizkio; emaitza orokorra 59.114.261,07 euro da, Bizkaiak ordaindu beharrekoa. Azkenik 2023ko ekitaldiko likidazioko AMASaren gutxieneko mailan 3.784.402,52 euroko partaidetza izateagatiko Bizkaiaren aldeko diru-sarrera gehitzea falta da.

Laburbilduz, 2024ko behin-behineko kupoaren lehen epetik eta 2023ko kupoaren likidaziotik, AMASaren gutxieneko mailagatik eta aldi baterako kargengatik dagozkion diru-sarrerak kenduta, Bizkaiko Foru Aldundiak 195.626.337,61 euro ordaindu zituen 2024ko maiatzaren 31n.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoari egindako ekarpenak

Urriaren 7ko 4/2021 Legearen bidez onartu zen baliabideak banatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuak finantzatzeko foru-aldundien 2022-2026 aldiko ekarpenak zehazteko metodologiarekin bat etorriz eta, aldi berean, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak 2023ko urriaren 11n hartutako erabakiak betez, foru-aldundiek 2024rako egindako ekarpenen zenbateko osoa 12.686.714.198 eurokoa izan zen eta ekitaldi horretarako koefiziente horizontalak %15,87 Arabarako, %50,49 Bizkairako eta %33,64 Gipuzkoarako, aurreko atalean aipatu den bezala.

Metodologia horren IV. kapituluko 18. eta 19. artikuluetan xedatzen denez, HDEKk Egokitzapenerako Funts Orokorra ezarriko du urtero, eta funts horren zenbatekoa, ekarpena eta erakundeen arteko banaketa zehaztuko ditu. 2024rako Egokitzapenerako Funts Orokorraren behin-behineko zuzkidura, zerga itunduen bilketaren aurreikuspenetatik eta ekitaldi

Por su parte, como liquidación del cupo 2023 resulta un importe a pagar por la Diputación Foral de Bizkaia de 57.551.152,72 euros, a lo que hay que añadir la liquidación del nivel acordado del SAAD (12.516,47 euros) y de las políticas activas de empleo (7.251.710,62 euros), ambas favorables al Estado, y restar 5.701.118,74 euros de la liquidación de las compensaciones financieras, siendo el resultado global de 59.114.261,07 euros a pagar por Bizkaia. Por último, falta añadir el ingreso a favor de Bizkaia por su participación en la financiación del nivel mínimo del SAAD de la liquidación del ejercicio 2023 por importe de 3.784.402,52 euros.

En suma, del primer plazo del cupo provisional 2024 y de la liquidación del cupo 2023, deducidos los respectivos ingresos por el nivel mínimo del SAAD y los gravámenes temporales, la Diputación Foral de Bizkaia ha pagado, con fecha 31 de mayo de 2024, 195.626.337,61 euros.

2.- Aportaciones a la Comunidad Autónoma del País Vasco

De conformidad con la metodología de distribución de recursos y de determinación de las aportaciones, para el periodo 2022-2026, de las Diputaciones Forales a la financiación de los presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobada por Ley 4/2021, de 7 de octubre, y en cumplimiento de los acuerdos adoptados por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas del día 11 octubre de 2023, la cifra global de las Aportaciones de las Diputaciones Forales para 2024 quedó fijada en 12.686.714.198 euros y los coeficientes horizontales para dicho ejercicio en el 15,87% para Araba/Álava, el 50,49% para Bizkaia y el 33,64% para Gipuzkoa, tal como se ha referido en el apartado anterior.

La referida metodología en su Capítulo IV, artículos 18 y 19, dispone el establecimiento anual de un Fondo General de Ajuste por parte del CVFP, así como la determinación de su cuantía, contribución al mismo y posterior distribución entre las instituciones. La dotación provisional del Fondo General de Ajuste para 2024, derivada de las previsiones de recaudación por tributos

bererako onartutako koefiziente horizontaletatik eratorria, 166.223.607 eurokoa da, eta horietatik Bizkaiari 24.498.087 euro ematea dagokio.

Otsailaren 5eko lehen ekarpen-epea, 1.067.587.000 eurokoa, lehen une horretan ordaindu zen % 50ean (533.793.500 euro) eta martxoaren 27an gainerako % 50ean, 2022-2026 aldirako HDEKk 2021eko uztailaren 15ean onartutako ordainketa-egutegiarekin bat.

2024ko otsailaren 12ko HDEKk 2023ko ekarpenen likidazioa onartu zuen, eta horren arabera Bizkaiak 39.535.356,58 euro ordaindu behar zituen 2024ko otsailaren 15ean. Egun berean 2023ko Egokitzapenerako Funts Orokorraren likidazioa ere egin zen eta Bizkaiari 11.677.964 euroko ordainketa egokitu zitzaion.

2024ko ekarpenen bigarren epeari dagokionez, lehenengoaren zenbateko berekoa, % 50 apirilaren 27an ordaindu zen (533.793.500 euro), eta maiatzaren 27an gainerako zenbatekoa.

Maiatzean, 2023ko kupoa Estatuari likidatu eta 2024ko kupo likidoaren lehen epea ordaindu ondoren, ekarpenen birkalkulua egin zen (bere metodologiaren 26. artikuluan xedatutakoaren arabera), eta emaitza hirugarren epe gisa Bizkaiak 1.078.112.118 euro ordaintzea izan zen. Lehen ordainketa (% 50) (539.056.059 euro) ekainaren 27an egin da 326.056.059 euroko zenbatekoarekin, eta gainerako ordainketa (213.000.000 euro) uztailaren 1era atzeratu da. Gainera, hirugarren epearen lehen ordainketarekin batera eta ekarpenen metodologiaren 30.1 artikuluaren arabera, 16.332.058 euro ordaindu dira 2024ko Egokitzapenerako Funts Orokorraren bi herenen konturako ordainketa gisa.

3.- HDEKri lotutako zerga itunduen bilketari eta zerga-bilketaren doikuntzei buruzko informazioa

Urriaren 7ko 4/2021 Legearekin bat etorriz, Bizkaiko Foru Aldundiak hileroko zerga itunduen bilketaren ziurtagiriak bidali dizkio Eusko Jaurlaritzari, Legebiltzarrari bidal

concertados y de los coeficientes horizontales aprobados para el mismo ejercicio, es de 166.223.607 euros, de los que corresponde aportar a Bizkaia 24.498.087euros.

El primer plazo de aportaciones de 5 de febrero, por importe de 1.067.587.000 euros, se hizo efectivo en ese primer momento en el 50% (533.793.500 euros) y el 27 de marzo el 50% restante, conforme al calendario de pagos aprobado por CVFP de 15 de julio de 2021 para el periodo 2022-2026.

El CVFP de 12 de febrero de 2024 aprobó la liquidación de las Aportaciones 2023, resultando para Bizkaia un importe a pagar de 39.535.356,58 euros, con fecha de 15 de febrero de 2024. En la misma fecha se realiza también la liquidación del Fondo General de Ajuste 2023, correspondiendo a Bizkaia un pago de 11.677.964 euros.

El segundo plazo de las Aportaciones 2024 de igual importe que el primero, se hizo efectivo abonando el día 27 de abril el 50 % (533.793.500 euros) y el 27 de mayo, el importe restante.

Tras procederse en mayo a liquidar el cupo al Estado 2023 y pagar el primer plazo del cupo líquido 2024, se efectuó un recálculo de las aportaciones (según lo dispuesto en el artículo 26 de su metodología) con un resultado para Bizkaia de 1.078.112.118 euros a pagar, como tercer plazo. El primer pago del 50% (539.056.059 euros) se ha hecho efectivo el 27 de junio por importe de 326.056.059 euros, aplazando el resto del pago (213.000.000 euros) al 1 de julio. Además, coincidiendo con el primer pago del tercer plazo, y conforme al artículo 30.1 de la metodología de aportaciones, se han abonado 16.332.058 euros en concepto de pago a cuenta de las dos terceras partes del Fondo General de Ajuste 2024.

